

50

zenbakia
Garai Berria
2019ko ekaina



■ Euskal Hezkuntza Sistema Berri Baterako Oinarriak ■
Thatcherismoa eta gure hezkuntza ■ Unibertsitatea (ren)
labirintoan barrena ■ Euskadiko lanbide heziketa
(Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide heziketa duala) ■
Hezkidetzatik, pedagogia feministarantz ■ Nafarroako
0-3 aren korapilo askaezina ■ OPE Osakidetza. Un
sistema fraudulento al servicio del capital ■ Berriro
ere erlijioa ■ EHIGE-ren diskurtsoa Euskal Eskola
Publikoaren 28. Jaiaren hasiera-ekitaldian

50 zenbakia Garai Berria

2019ko uztaila

- Araba** Eulogio Serdán 5 • 01012 **Gasteiz**
☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02
araba@steilas.eus
- UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 **Gasteiz**
☎ 945 01 33 97 (3397)
steilas-araba@ehu.es
- Bizkaia** Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60
bizkaia@steilas.eus
- UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegi eraikina, 2 - 1 • 48940 **Leioa (Bizkaia)**
☎ 946 01 24 34 – 24 35
steilas-bizkaia@ehu.es
- Gipuzkoa** Basotxiki 30-34 atz. • 20015 **Donostia**
☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.eus
- UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 • 20018 **Donostia**
☎ 943 01 84 36 (8281) 📠 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es
- Nafarroa** Joaquin Beunza, 4-6 behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90
nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus





Euskal hezkuntza sistema berri baterako oinarriak <i>Pedro J. Macho Aguillo</i>	2
Thatcherismoa eta gure hezkuntza <i>Aitor Idigoras</i>	10
Unibertsitatea(ren) labirintoan barrena <i>Patxi Azpillaga</i>	14
Euskadiko lanbide heziketa (Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide heziketa duala) <i>Kepa Zamalloa eta Rafa Beloki</i>	19
Hezkidetzatik, pedagogia feministarantz <i>Nagore Iturrioz</i>	24
Nafarroako 0-3 aren korapilo askaezina <i>Amaia Zubieta Garciandia eta Diana Bruño Artazcoz</i>	29
OPE Osakidetza. Un sistema fraudulento al servicio del capital <i>Patxi Nicolau</i>	33
Berriro ere erlijioa <i>Arantza Lekuona</i>	37
EHIGE-ren diskurtsoa Euskal Eskola Publikoaren 28. Jaiaren hasiera-ekitaldian <i>Ana Puente</i>	39

Euskal hezkuntza sistema berri baterako oinarriak

Pedro J. Macho Aguillo

Hezkuntza ikuskaria.

“*Pertsona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdintzailea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetza), ikuspegi kritikoa eta elkartasun internazionalista sustatuko dituen, hezkuntzaren etapa guztietan, bai derrigorrezkoetan eta bai derrigorrezkoak ez direnetan*”¹.

1 Euskal Herriko hamarnaka eragile sozial eta sindikalek sustatutako urtebeteko eztabaida prozesu zabalaren ondoren, 2014ko maiatzaren 31an Bilbon onartutako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta.

1. Hitzaurrea

Hezkuntza izan da inongo dudarik gabe gizateriaren historia luze osoan zehar lorpenik handiena. Horri esker banakako pertsonen nahiz gizarte ororen sekulako aurrerapen sozialak, teknologikoak, kulturalak, medikoak, ekonomikoak, zientifikoak, humanistikoak eta politikoak gauzatu ahal izan ditugu. Hezkuntzaren bidez ez da bakarrik lortu hizkuntzak, ezagutzak, balioak eta kulturak belaunaldi batetik hurrengoetara transmititzea², baizik eta horiek guztiak biderkatu izana eta horietako askoren eraginez munduko biztanle gehiengo handi baten ongizate maila modu esponenzialean handitzea ere. Gainerako giza eskubide guztien ezinbesteko oinarri dugu hezkuntza, egungo sistema demokratiko eta sozial guztien funtsezko zutabea: askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna ezinezkoak izango lirakeke guztiz hezkuntzarik gabeko mundu batean; etxegintzan, nekazaritzan, industrian, elikaduran, merkataritzan, medikuntzan, teknologian, eraikuntzan, zientzietan, astronomian, filosofian, ekologian, komunikabideetan, literaturan, arteetan, giza harremanetan eta gure bizitzaren beste hainbat esparrutan izandako aurrerapen guztiak eta horien guztien etengabeko hobekuntzak ulertezinak izango lirakeke hezkuntzaren garapenik gabe. Horregatik garapen sozialaren abiapuntutik hezkuntza izan da eta bada gizarte guztietan, aro guztietan inbertsiorik emankorrena, eraginkorrena eta errentagarriena.

2 Hauen guztien transmisioa soziala eta familiarra izan da gehienetan, eta bada oraindik, denontzako hezkuntza sistemarik gabeko gizarte zein aroetan. Eta egun ere hola izaten da hizkuntza eta kultura gutxitu ez errekonozituak dauden herrialde askotan, hezkuntza sistema ofizialetatik at, etxe barruko eremuan bermatzen da soilik horien guztien biziraupena. Hala ere suertatzen da gurean dauden gero eta hizkuntza eta kultura askoren kasuan, migrazioek eta pertsonen bestelako bizitokiz aldatzeek eraginez gero eta gehiago direlarik. Baina dokumentu honetan euskal hezkuntza sistema propioa da gakoa, hau da, gure herriaren ondare linguistiko eta kulturean ardazturikoa. Gainerako horien guztien eskubideak ere nola bermatu, horretan nola integratu beste gai konplexu bat da, aparteko beste hausnarketa batean bereziki jorratu beharko litzatekeena (aurrerantzean, hala ere, aipamen batzuk egingo dira ondorengo beste atal batzuetan).

Baina mende eskasa bada oraindik, hainbat tokitan ezta hori ere, hezkuntza orokortu zenetik, hau da, hiruzpalau belaunaldi besterik ez. Are askoz gutxiago hezkuntzarako gizaki guztion eskubidea errekonozitu zenetik. Gizateriaren historiaren milaka urtetan zehar, hezkuntza izan da elite gutxi batzuen pribilegioa, eta haien pribilegioen oinarrietako bat, oso zorrotz bereizitako klaseen sistema sozialen funtsezko zutabeetako bat. Eta ez bakarrik jakinduria eta kultura euren ondare pribatu mantendu egiten zituztelako, baizik eta horrez gain gizarte-harreman endogamikoak ere sortzen zituztelako, boterea, agintea eta horiekin batera aberastasuna ere haien gain hartzeko aukeratutako pribilegiatu gutxien artean, jakina. Horregatik hezkuntza sistemak, kontzienteki diseinatutako egitura bezala, oso berriak dira. Ordura arte, gizabanako bakoitzak, famili bakoitzak, edo gehenez oso ondo mugatutako kasta batzuek haien erara, haien interesen zerbitzura soil-soilik, gutxi batzuentzako bakarrik, botere-tresna hutsaren moduan antolatzen zituzten tokiz tokiko euren hezkuntza sistema propioak (aristokraten etxeko tutore partikularrak, artisauen gremioak, elizaren monasterioak, goi burgesiaren unibertsitateak eta abar). Horren ondorio zuzena argia zen: bereizketa sozialak eta ekonomikoak betikotu egin dira, agintea oso esku gutxitan gorde izan da, kultura ondarea pribilegiatuen altxorra izan da soilik, produkzio-tresnak eta kapitala famili gutxi batzuetan kontzentratu eta mantendu egin da, herritar gehienak zapalduta eta txiro bizi behar izan diren bitartean mende luzeetan zehar...

Iraultza handia izan zen, beraz, hezkuntzaren hedapena, ekarpen zoragarriak izan ditu gehiengo handi baten bizimoduan eta bizi mailan. Sufrimendu handiz eta odolaz, oso gogor borrokatuz lortu zuten herriek hezkuntzarako eskubidea gauzaraztea. Baina ez horregatik bakarrik: industrializazioaren ondorioz eta produkzio-sistema berrien beharrianak asetzeko, goi klase nagusien interes ere bilakatu zen momentu zehatz batean hezkuntza zabaltzea, lan-eskua haien beharretara kualifikatzeko eta egokitzeko asmoz, hain zuzen ere. Edonola izanda ere, hezkuntzak ordura arteko mundua erabat eraldatu zuen, hezkuntza orokortzearen iraultza bultzatu zuten askoren asmorik haratago.

Eta hortik agerian azaltzen da hezkuntza dela edozein herri, edozein gizarte eraikitzeke ezinbesteko fun-

teszko tresna. Hezkuntzaren bidez garatu nahi den gizarte diseinatzeke saiakera ohikoa izan da oso historian zehar, herrialde gehienetan, eta hortik, bada, sarritan esandakoa: zer nolako gizarte, halako hezkuntza eta, ondorioz, halako hezkuntza sistema. Hezkuntza sistema autoritario batek ezingo du gizarte demokratikorik sortu, baztertzaila bada ezberdintasunak mantendu eta areagotuko ditu inguruan, eredu hierarkiko batek ezin du partehartze edota kontrol sozialerako mekanismorik sustatu, dogmatikoa bada pentsamendu kritikorik ez du onartuko, lehiakorra izanik elkertasuna ez du gizarte-balio bultzatuko, homogeneousatzailea bada aniztasunak eta inklusibitateak ez dute aukerarik izango... Hau da, herrigintza eta hezkuntza eredu batera doaz ezinbestean.

Horregatik, hain zuzen ere, hezkuntza bilakatzen da edozein herri, herrialde edota gizarte egituratzeko elementurik garrantzitsuen, bai historiaren momentu zehatz batean dagoen eredu finkatzeko, bai eraldatzeko, baita beste berri bat sortzeko ere. Herri eta nazio bakoitzari eskubide ukaezina dagokio bere gizartearen premiei eta nahiei ondoen moldatzen zaien hezkuntza-eredua diseinatzeke. Ez bakarrik eskubidea, betebeharra baizik. Eta horregatik ere oso arriskutsua da hezkuntza eredu definitzeko eta hezkuntza sistema kudeatzeko ahalmenak gizarte ororen beharrak, itxaropenak eta interes kolektiboak barik, herri oso mailako denon funtsezko eskubideak eta eskumenak beharrian, pertsona, klase, sektore, talde edota kolektibo gutxi batzuen interes partikularrak soilik bila ditzaketenen esku uztea. Eta horregatik ere Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan, beraz, hasiera-hasieratik azaltzen da euskal hezkuntza sistema eredu zehatz bat sustatzeko premia, eta horretan bertan euskal gizartean sustatu nahi ditugun balioak ere zehaztu beharra dago lehenik eta behin, batera baitoaz, berberak izan behar baitira. Azken finean, hezkuntza sistema propioa izatea ez da, berez, nahikoa; horixe bada lehenengo ezinbesteko betekizuna, baina ez bakarria, ordea, zeren eta Euskal hezkuntza sistema gure herriaren propioa bai izan behar, baina horrez gain ezin da edonolako izan, propioa bakarrik izateak ez baitu berez bermatzen egokia, zuzena, berdintzailea, demokratikoa, parte hartzailea, inklusiboa, konpentsatzailea eta, batik bat, sozialki justua ere izatea.

2. Publikotasuna

Aurreko bi ataletan jorratutakoaren ildo beretik, beraz, herri bakoitzari eskubide ukaezina badagokio haren gizartearen premiei eta baldintzei ondoen molda dakiekeen hezkuntza-eredua diseinatzeko, herri horrek sustatu nahi duen gizarte-eredua eraikitzen laguntzeko hezkuntza sistema, eskubide eta bete-beharra aldi berean delarik, gainerako gizarte-zerbitzu guztiak bezalaxe.

Abiapuntu honetatik, bada, gobernu demokratikoari badagokio hezkuntza-sistema eta ikastetxeen sarea sortzea eta zuzenean kudeatzea, ez bakarrik herritar guztien hezkuntza-eskubidea bermatzeko, baizik eta goian aipatutako gizartearen funtseko printzipio eta balio guztiak sustatzeko ere. Ondorioz, hezkuntza-sistema osotzen duten ikastetxeak publikoak izan behar dira ezinbestean, herriarenak eta herrikoiak, denontzat eta denonak. Historiak erakutsi bezala, eskola pribatuek ezberdintasun sozial zein bestelakoetan oinarritutako gizarte egitura sustatzen dute berez. Eta arduradun publikoek ezin dute inolaz ere hori babestu, are gutxiago ahalbidetu edo bultzatu, ez behintzat aukera-berdintasuna eta kohesio sozialaren printzipioetan benetan ardaztu nahi den herri batean. Askatasun indibidualari helduz, zilegi da maila guztiz pertsonalean eskola pribatuaren alde familia batek bere hautua egitea, sistema komunetik kanpo beste edozein ikastetxe bere seme-alabentzako aukeratzea arrazoi partikular ezberdinak direla eta (erlijioa, ideologia, hizkuntza, kultura, klase soziala, balioak eta abar); baina gizarteak bere osotasunean, eta ondorioz herri ororen kontu publiko komunak kudeatzen dituzten egitura politikoen interes kolektiboak lehenetsi behar dituzte partikularren gainetik, baita oso zorrotz neurtu eta behar izatekotan zuzendu ere bidezko eskubide indibidual batzuen balizko ondorio ez egokiak, batzuetan ere kaltegarriak, berdintasuna eta justizia soziala sustatu nahi dituen herri batean. Hezkuntza arduradunen eginkizun argia da ezberdintasun sozialei aurre egitea, klaseen zein bestelako gizataldeen arteko arrakalak zuzentzeko neurriak hartzea, aukera-berdintasun printzipioa bizitza sozialaren eremu guztietan gauzatzea. Eta horrek talka egiten du horien kontrakoak edonola ahalbidetzearekin. Horregatik, hain zuzen ere, ikastetxeen sarea eta herri hezkuntza sistema bera publikoak izan behar dira.


Hezkuntzan, osasungintzan, pentsioetan zein gainerako gizarte-zerbitzu guztietan, sare bat baino gehiago egotea, sare duala segregatzailea da berez ikuspegi sozial batetik, bereizketan oinarritzen da eta bereizketak sortzen ditu halaberharrez. Bereiztea da, bereizkeria hain zuzen ere, horren existentziaren arrazoi nagusia: gutxi batzuk besteengandik bereiztea sexua, ideologia, hizkuntza, maila sozioekonomikoa, etnia eta beste hainbat faktoreengatik. Aukera-berdintasunean, jatorrizko ezberdintasunen konpentsazioan, kohesio sozialean eta, oro har, justizia sozialean oinarritu nahi duen gizarte-sistema batek ezin du bereizkerian sustatutako sistema bat ezarri, ezin du bereizketa mantendu eta betikotu nahi duen egiturarik sortu. Azken finean, hezkuntza eremuan behintzat, berariazko ikasketak baino, haien seme-alabentzako berariazko harreman sozial konkretu batzuk bilatzen dituzte gehienbat gurasoek, boterea edota nagusitasun soziala eta ekonomikoa dutenen zirkuluetan sartzea edota mantentzea, berdinen edo parekoen artean soilik murgiltzea, etorkizunerako abantaila indibidualak, giza harreman probetxugarriak zein berariazko etekin sozialak lezarzkieketen kontaktu-sareak, sozialki gainerako guztiena baino egoera pribilegiatuagoa (osasun-sistema edota pentsio-plan pribatuetan, esaterako, gertatzen den bezalaxe). Eta zilegi izan daiteke maila guztiz pertsonalean gurasoek hori nahi izatea haien seme-alabentzako, baina gizarteak errentagarritasun kolektiboari erreparatu behar dio gehienbat, errentagarritasun sozial indibidual guztien gainetik denon berdintasuna eta kohesio soziala lehenetsiz.

Ulertezina izango litzake, beraz, Euskal Eskola Publikoa eta Euskal Hezkuntza Sistema Propioaren aldeko funtsezko aldarrikapen sozialak bereiztea, bi ezaugarri horiek osagarrikoak baitira ezinbestean justizia eta kohesio sozial handiagoak lortu nahi dituen edozein herri-eredutan. Ikastetxe publikoen sare bakarrak baino ez du bermatzen gizartearen kohesioa, hau da, herritar guzti guztiek aukera berberak izatea eta izan litezkeen jatorrizko desberdintasunak konpentsatzea. Hezkuntza-sistema, ezin da ahaztu, edozein herriaren funtsezko egitura politikoa eta soziala da, bere osotasunean herri, gizarte justuagoa eta berdintzaileagoa lortzea goimailako xede izan behar duena. Horretarako, gizaki, herritar bakoitzaren formazioa bere garapen pertsonal integralera zuzendu beharra dago, baina gizarte ororen,

herri osoaren hobekuntza kolektiboari eragiten dion ekarpen gisa, dakartzan onura partikularren gainetik.

Planteamendu horri berari helduz, beraz, herri administrazioko maila, egitura eta arduradun publiko guztiak inplikaturik daude, horiek direnak direla eta bakoitza bere eragin-eremu zehatzaren arabera, hezkuntza publikoaren kudeaketan: gobernuak, gobernuaren departamentuak, foru aldundiak, eskualdeak, mankomunitateak, udalak... Eta horietan guztietan, ardura erabat globala eta bateratua ere behar du hezkuntzak: gizartearen hezkuntza sistema ez da bakarrik hezkuntza sailaren ardura, baizik eta departamentu edo sail guztiena; osasun, osasun, gizarte-politika, ekonomia, kultura, lana, garraio, familia, gazteria, nekazaritza, justizia, ingurumena edota hezkuntza politika arloek ere erantzukizun argia eta zuzena badute hezkuntzarekin zerikusia duten hainbat asuntotan: beharrezko finantziarioa lehenetsuz bermatzeko, eskaintza toki guztietara eta herritar guztiengana helarazteko, tokiz tokiko beharrezko konkretuetara egokitutako berariazko baliabideak hornitzeko, zerbitzuak eta esku-hartzeak koordinatzeko, sistemaren aukera-berdintasuna eta eskola-kide guztien eskubideak bermatzeko, eskola-eremuan azaltzen diren osasun edota gizarte-arazoei aurre egiteko... Behin baino gehiagotan adierazi bezala, hezkuntza herri ororen ardura da non gizartearen eremu ugari biltzen diren eta, ondorioz, kudeaketa integrala eta integratua beharrezkoa den.

Hezkuntza sistema bateratua eta komuna, denontzako iguala izan dadin, herritar guztion eskubideen bermea ziurtatzeko, esaterako, gobernu demokratikoaren goi mailako arau orokorrak behar dira hainbat aspektutan (sistemaren egituraketa, hezkuntza etapak, aurrekontuak, gutxieneko curriculum komuna, giza zein baliabide materialak hornitzeko oinarritzko irizpideak, ikasleen sarbidearen antolaketa, tituluak eskuratzeko baldintzak...), baita horien guztien kudeaketa ere. Baina hortik abiatuta, beheagoko gainerako herri administrazioekiko lankidetzan ere ezinbestekotzat jotzen da hainbat arlotan: foru aldundien menpe dauden familia eta haur eta nerabeen zerbitzuak, udaletako gizarte-zerbitzuak, kultura eta aisialdi-jarduerak herri mailan eskaintzen dituzten hainbat erakunde publiko, hirigintza eta ikastetxeen eraikuntza eta mantenua, osasun zerbitzuak arreta fisikoa eta psikikorra... Ildo honetatik, besteak beste,



Hezkuntza da edozein herri, edozein gizarte eraikitzeko ezinbesteko funtsezko tresna. Hezkuntzaren bidez garatu nahi den gizartea diseinatzeko saiakera ohikoa izan da oso historian zehar, herrialde gehienetan, eta hortik, bada, sarritan esandakoa: zer nolako gizartea, halako hezkuntza eta, ondorioz, halako hezkuntza sistema.

irakasleak ez diren berariazko beste langile batzuk aritu beharko lirateke ikastetxeetan, maisu-maistrei eskatu ezin zaizkien beste funtzio garrantzitsu batzuk haiekin lankidetzan bete ditzaten: erizain batek bermatu beharko luke, adibidez, ez bakarrik balizko istripuen edo osasun arazoan aurreko berehalako arreta, baizik eta bere gain hartu lan-osasuna eta lan arriskuen prebentziorako neurriak, segurtasun planak, osasun publikoa eta gaixotasun kutsakorren kudeaketa, baita, are gehiago, ikasleekiko curriculum esku-hartze batzuk ere (higienea, ohitura osasuntsuak, elikadura orekatua, droga eta bestelako menpekotasun batzuen prebentzioa, antisorgailuak eta sexuaren bidez transmititutako gaixotasunak, lehen laguntzetarako teknikak...); ikastetxe guztiek izan beharko lukete erreferentziazko gizarte-zerbitzuetako langile bat azaltzen diren eremu horretako arazoei berehala aurre egiteko (haurren babesgabetasun egoerak, familien barruko egoera arriskutsuak, integrazio soziala, etorkinen harrera plan integralak, etxe barruko esku-hartzeak, desegituratutako nukleo familiarrak...); ildo beretik, kultura, kirol eta aisialdirako udal monitoreen esku egon daitezkeela ez bakarrik eskola ordutegitik kanpoko jarduera osagarrien eskaintza eta kudeaketa, baizik eta eskola barruko batzuk ere (bazkal eta jolastorduak, bereziki), eta horregatik ikastetxeen egunero funtzionamenduan, antolakuntzan eta koordinazio hezitzailean presentzia izan beharko lukete; ikasketa mota batzuetan, lanbide heziketan gehienbat baina ez bakarrik, enplegua eta lan arloari

lotutako berebiziko jarduera batzuk profesional adituen eskuetan ere utzi beharko lirateke (curriculum vitae, lanerako elkarrizketak, lan eremuko araudia, lan-eskubideak, kontratuak...), psikopedagogiaren ikuspegitik aholkulariek eta orientatzaileek gainerako ikasketetan egiten duten moduan. Eta, noski, administrazio eginkizunak eta kontu burokratikoak kudeatzeko berariazko langileak, baita, ziur aski, beste figura beharrezko batzuk ere ikastetxeen eguneroko bizitzan integratu beharko lirateke.

Herri administrazio horietan guztietan burutzen den kudeaketaren gainean kontrol soziala ere bermatu beharra dago funtsezko beste irizpide gisa, hori baita edozein egitura bene-benetan publiko egiten duen ezaugarria. Herriaren, komunitatearen kontrol soziala ez da bakarrik parte hartzea, demokrazia, gardentasuna, zuzentasuna, kalitatea eta egokitasun soziala sustatzeko ikastetxeetan banan-banan, eskola bakoitzean bermatu behar den ezaugarria, baizik eta kontu publiko guztiak kudeatzen dituzten administrazio-egitura guztietan ere. Gizarte-kontrol mekanismoak eta horretarako bide eraginkorrak sustatu beharra dago edozein gizarte-zerbitzu ematen, edozein gizarte-eskubide garatzen duen egitura administratiboaren maila ezberdin guztietan, maila bakoitzean, goitik behera, behetik gora. Ikastetxe bat benetan publikoa izan dadin bere komunitateak, bere auzoak, bere herriak zein eskualdeak ahalmen erreala izan behar dute mikro-gizarte horri eragiten dioten erabakiak hartzeko, kontuak eskatzeko, prozesuen inguruko informazioa eskuratzeko, betiere parte-hartzean eta demokrazian oinarrituz, eta betiere makro-gizartearen balio komunei eutsiz. Gizarte-zerbitzuen titulartasun publikoak bere baitan dakar gizarte-kontrolaren baldintza, pribatuak ez bezala (honetan, berriz, kontrol-ahalmen hori jabetasuna duenak edo partekatzen dutenek dute soilik, eta ez noski goi-mailako interes kolektiboetara begira, baizik eta horien interes partikularrak asetzen direnaren arabera, sozialki bidegabeak badira ere).

Goi mailako legegintzaren prozesuan justizia, berdintasuna eta elkartasuna kontrol parlamentarioa eta gizarte zibilaren kontrol sozialaren bidez gauzatzen dira goi-mailako arau orokorrak, denontzako oinarri juridiko komunak, denoi modu berean eragiten dizkiguten erabaki potoloak; era berean, bada, beharrezko ondorengo administrazio-mailetan ere

horien osteko garapen eta gauzapen praktikoetan ere etengabeko kontrol sozialerako azpi-egiturak sustatu behar dira, tokiz tokiko errealitate, ezaugarri eta baldintza zehatzera egokituz. Eta horrekin batera, eguneroko ohiko kudeaketan eta erabakitze-prozesuetan gertutasuna funtsezko printzipioa ere bada, herritarrengandiko hurbiltasuna. Benetako kontrol sozialaren bidezketasuna, zuzentasuna eta eraginkortasuna gertuko egituretatik berma daitezke askoz ere hobeto. Azken finean, labur bilduz, publikotasuna eta gizarte-kontrola batera joan behar dira administratibo-kudeaketaren maila guztietan, txanpon bereko halabeharrezko aldeak izan behar dira.

Bestaldetik, hezkuntza-sistema publikoa nahikoa eta zabala izan behar da herritar guztiei hola eskatzekotan eskola-plaza bat bermatu ahal izateko edozein adinean, edozein etapatan, edozein tokitan, edozein ikasketa motatan. Azken finean, herritarren eskubideak betetzea eta guztioi berdin bermatzea da administrazio publikoen existentziaren beraren xede nagusia, funtsezko zeregin uko ezina. Eta aukera-berdintasuna horretan ere badatza: hiri handi batean zein muturreko herrixkarik txikienean biztanle guztien hezkuntzarako eskubideak igualak dira, izan behar dira. Hezkuntza eskaintzaren modalitate guztien planifikazioa printzipio horri heldu beharko lioke beraz, betiere bestelako faktore batzuk kontuan hartuz (adina, derrigorrezko etapak, inguruko beharrian sozialak, ikasleen eskaeraren tamaina, familien premiak, balizko garraioa...). Ez da bidezkoa, aldiz, hiri handi batean, auzo zehatz batean hainbat ikasle eskatutako plaza publikorik gabe geratzea administrazioek planifikatutako eskaintza urriegia izateagatik edo hala nola mugatzeagatik; ezta modu berean ere herri txiki bateko haurtxoei etxetik distantzia handiz bidaiaraztea eskola-kontzentrazio artifizialak eta erraldioak bultzatu izanagatik. Horiek ez dira, bada, hezkuntza-politika sozialak, ez bata ez bestea. Horiek badira, bada, herriak kontrol sozialaren bidez zuzendu beharko lituzkeen erabakien adibide bi. Eta eginkizun horretan, berriz, inplikaturako administrazio publiko ezberdinak lanean batera jarri.

Hezkuntza eskaintza publikoaren nahikotasuna eta herritar guztientzako eskola-plaza publikoaren bermearekin batera, erabateko doakotasuna dugu publikotasunaren beste ardatz bat, erabateko aukera-berdintasuna, jatorrizko alde sozioekonomikoen

Hezkuntza sistema propioa izatea ez da, berez, nahikoa; horixe bada lehenengo ezinbesteko betekizuna, baina ez bakarria, ordea, zeren eta Euskal hezkuntza sistema gure herriaren propioa bai izan behar, baina horrez gain ezin da edonolakoa izan, propioa bakarrik izateak ez baitu berez bermatzen egokia, zuzena, berdintzailea, demokratikoa, parte hartzailea, inklusiboa, konpentsatzailea eta, batik bat, sozialki justua ere izatea.

konpentsazio eraginkorra, aberastasunaren birbanaketaren justizia soziala eta, oro har, inguruko kohesio soziala berma ditzakeen funtsezko faktorea. Eta hola benetan izan dadin doakotasuna hezkuntza-prozesua osotzen duten elementu guztiei zabaldu behar zaie: eskaera guzti guztiak asetzeko plaza publikoen kopuru nahikoa, ikastetxe publikoen eskaintza gertua, ikasleen hezkuntza premia guztiei erantzuteko behar beste profesionalak diru-kosturik gabeko eskola-materialak, instalazio eta ekipamendu egokiak eta denoi irekiak, kultura eta aisialdirako doako baliabideak eta jarduerak nonahi, behar izatekotan eskola jantokiak eta garraioa...

Are gehiago, familien egoera sozioekonomiko eta kultural berezi batzuk konpentsatzeko, hezkuntza prozesu formal eta informaletan ume eta gazte guztien parte hartzea errazte eta bultzatze aldera, diru-laguntzen sistema bat ere aurreikus daiteke kasuz kasu, salbuespeneko egoera behartuei erantzuteko. Eta hola balitz, banakako laguntzak izan beharko lirateke, ikastetxeei zein bestelako erakundeei baino pertsonen zuzenean zuzenduak, betiere famili konkretuen errenten arabekoak, berriz ere progresibitatea, aberastasunaren birbanaketa eta justizia sozialaren printzipioei helduz. Honen guztiaren helburua argia

Hezkuntza-sistema osotzen duten ikastetxeak publikoak izan behar dira ezinbestean, herriarenak eta herrikoiak, denontzat eta denonak. Historiak erakutsi bezala, eskola pribatuek ezberdintasun sozial zein bestelakoetan oinarritutako gizarte egitura sustatzen dute berez.

da: inklusibitatea eta aukera-berdintasunaren bermea ez dira bakarrik gela barruko jardueri edota ikastetxe zehatz baten barne funtzionamenduari dagozkien ezaugarriak, baizik eta hezkuntza sistema osoari, administrazio publiko guztiei, gizarte-zerbitzuei eta horien egiturei, hezkuntza-politika eta arduradun guztiei exijitu behar zaien betekizunak.


Planteamendu honetan, orduan, argitu beharra dago irakaskuntza pribatuaren estatusa. Goian adierazi bezala, askatasun indibidualari atxikiriko eskumenetariko bat da ez bakarrik ikastetxea nork bere preferentzi pertsonalen arabera aukeratzea, baizik eta ikastetxeak ere nork bere ideologia, erlijioa, asmoa, nahia edota bestelako edozein berariazko ezaugarri partikular baten arabera sortzea eta mantentzea. Gizarte libre batean lagun baten zein lagun-talde baten ekimen pribatua guztiz libre da haien ustez euren interesei hobeto erantzun lekiekeen denon hezkuntza sistema komunitik at aparteko ikastetxe bat edo ikastetxeen sare bat sortzea, antolatzea eta kudeatzea. Baina hau ere, noski, muga batzuen barruan, gizarteak berak ezarritako baldintza batzuetan eta oinarritzko premisa batzuk betiere errespetatuz: herriak berak finkatutako funtsezko printzipio komunak kontra egiterik ez dago, gizarte ororen funtsezko balioak suntsitzerik ez, hau da, ekimen pribatu eta libre horrek ezingo du jo gizarte ororen beraren aurka, ezta denon artean adosturiko gizarte-eredua eta horren antolakuntza, funtzionamendu bizikidetzarako arauak arriskuan jarri ere. Adibidez, generoaren araberrako zein beste edozein bereizkeri sustatzen duten idearioek edo praktikek ezingo dute tokirik izan, ezta herritar batzuen edo guztion oinarritzko eskubideren bat edo batzuk arriskuan jar ditzaketenek ere. Oro har, gizarte ereduaren oinarriak diren askatasuna, aniztasuna, berdintasuna, elkartasuna, ezberdintasunen konpentsazioa, justizia eta kohesio sozialaren funtsezko printzipioak urratzen dituzten proiektuak ezin dira onartu, gutxi batzuen ustezko onura gainerako guztion kontra doala. Horrexegatik, gainera, neurri aktiboak eta eraginkorrak ezarri beharko dituzte hezkuntzako herri arduradunek ikastetxe horiek behar bezala ikuskatzeko, horietako ikasleen, familien zein irakasleen funtsezko eskubide pertsonalak, zibilak eta sozialak horietan ere bermatzen direla egiaztatzeko, baita gizarte ororen oinarritzko printzipioak errespetatzen direla ere. Azken finean, bada, administrazio publiko guztien betebeharrak nagusietakoa

da gizartea bera eta horren balio kolektiboak alor guztietan babestea, defendatzea eta bermatzea.

Eta era berean, horien batzuen eskubideek, gutxi batzuen ekimen partikularrek (indibidualak zein talde zehatz baten kolektiboak), bidezkoak edota legezkoak izan badaitezke ere, ezin diete gainerako herritar guztiei inongo betebeharririk ekarri, inposatu. Hau da, denon hezkuntza-sistematik at kokatzen diren aparteko ikastetxe pribatuek eta ikastetxe horiek libreki aukeratzen dituzten gurasoek ezingo dute inongo finantziario publikorik jaso, ekimen pribatuak eremu guztiz pribatuan mantenduko dira baldintza guztietan, ondorio guztietarako. Gutxi batzuen ikastetxeak sortzeko eta aukeratzeko askatasunak, haien preferentziak eta erabaki pertsonalek ez dakarte berez denon funts publikoek ordaintzeko inongo eskubiderik, gainerako guztion inongo betebeharririk, osasungintzan, pensio-sisteman, justizian, lanbide edota beste zerbitzu publiko guztietan egin behar den bezalaxe: doako parke publiko nahikoak eta kalitatezkoak denontzako bermatuta badaude (eta herri administrazioek bermatu behar dituzte zalantzarik gabe), esaterako, edonork badu bere edo beste gutxi batzuen gustuko eta eurentzako bakarrik golf-zelai bat egiteko eskubidea, baina ez aldiz denon artean ordain dezagun exijitzeko.

Eta guztiz publikoak ere izan behar dira hezkuntza titulu ofizial guztiak. Hezkuntza administrazio publikoak izan behar du edozein ikasketa plan edota prestakuntza programa kreditatzeko erabateko eskuduntza, eskusiboa. Herri administrazioaren esku mantendu beharra dago soil-soilik hezkuntzako tituluak, ziurtagiriak, kreditatze-dokumentuak, diplomak eta abarrekoak emititzeko boterea, baita horietako estandarrak, baldintzak, prozedurak eta kontrol bateratuak ere. Azken urteotan titulu akademikoak erabat desarautzeko joera nagusitzen ari da, gehienbat neoliberalismoa muturreraino eramane eta hezkuntza erabat pribatizatu nahi duten sektoreen partetik. Honen helburua ez da bakarrik hezkuntzan, lan-prestakuntzan eta horien zertifikazioetan negozio pribatu handi bilakatzea, hezkuntzaren merkatu guztiz libre sortzea, baizik eta horren ondorioz ere enpresarioen eta langileen arteko lan-harremanak ere guztiz askatzea, desarautzea. Hezkuntza titulu pribatuek eta horien inflazioak

Hezkuntza arduradunen eginkizun argia da ezberdintasun sozialei aurre egitea, klaseen zein bestelako gizataldeen arteko arrakalak zuzentzeko neurriak hartzea, aukera-berdintasun printzipioa bizitza sozialaren eremu guztietan gauzatzea. Eta horrek talka egiten du horien kontrakoak edonola ahalbidetzearekin. Horregatik, hain zuzen ere, ikastetxeen sarea eta herri hezkuntza sistema bera publikoak izan behar dira.

dakartzaten arriskuak argiak dira: hezkuntza mailak eta prestakuntzaren ondoriozko gaitasunak egiaztatzeko administrazioaren monopolioa behin suntsituta, formazio enpresa nahiz fundazio pribatuei ere ahalmen hau zabaldu ondoren, horiek ere bereganatuko lukete haien interesen arabera curriculumak eta estandarrak finkatzeko eskumena, baita, gizaki bakoitzak izandako ikasketen zein prestakuntzaren ziurtagiriaren garrantzia ahuldu eta devaluatzearen eraginez, lanerako sarbiderako betekizunak eta baldintzak zehazterakoa, lan kategoriak eta horietan oinarritutako lansariak eta lan baldintzak nahi beste malgutzekoa, eta negoziozko kolektiboak hitzarmen indibidual bihurtzekoa ere. Eta, zer esanik ez, tituluen merkatu erabat desarautuak sortuko lituzken bestelako praktika okerrak: norberaren ahalmen ekonomikoan oinarritutako lehiakortasuna, tratu ezberdintasunak, ikasleen aniztasuna aintzat ez hartzea, nepotismoa, hainbat arrazoi pertsonal zein sozialengatiko diskriminazioak, ustelkeria... Planteamendu honetan, gainera, arreta berezia merezi dute lanbide heziketako titulu guztiek, ez bakarrik araututako lanbide heziketa espezifikoarenek, baizik eta, batez ere, langileen etengabeko prestakuntzarenek eta lan sustapenerako prestakuntzarenek ere. 

Thatcherismoa eta gure hezkuntza

Aitor Idigoras

STEILASeko Nazio Batzorde

Iraunkorreko kidea.

10

Kapitalismoaren oinarria merkatuen agintea eta jabetza pribaturako eskubidearen defentsa da, beste ezerekin aginetik. Margaret Thatcher eta Ronald Reagan eredu kapitalista inposatu nahi zutenen txontxogiloak izan ziren, ez besterik, eta beste askoren artean, neoliberalismoaren ekonomi korrante ultraliberalena munduan zehar hedatu zuten.

Politika hauen abiapuntu nagusienetarikoa hezkuntzaren eta osasungintzaren pribatizazioa eta desarautzeak izan ziren. Beraien ikuspuntuaren arabera “administrazioa” arazoa zen, ez irtenbidea. Hartara, ekonomia arloan eta horri loturiko guztian (zerbitzu publikoak, lan-harremanak, estatuaren diru-laguntzak, merkataritza, finantzak, garraioa...) estatuaren kontrola eta arautzeko ahalmenak bertan behera utzi behar zirela zioten, horien desarautzea bermatu, merkatuen erabateko askatasuna eta dinamikak ahalbidetzeko. Estrategia horrek herritarrak zerbitzu publiko lehiakor baten bezero bilakatzen zituen eta sistema publiko osoa horren arabera arautzen (desarautzen) hasi zen. Hezkuntza sistema batez ere. Milton Friedmanek “kapitalismoa eta askatasuna (1962)” eta “Libertad de elegir (1980)” saiakeren bidez, ikuspuntu kapitalista batetik, hezkuntza kudeatzerakoan estatuak izan beharreko rola lehen aldiz planteatu zuen: eskola txeketa eta familien ikastetxea aukeratzeko eskubidea lehenestea, sistemen desnazionalizazioa eta deszentralizazioa, eskolen lehiakortasuna eta efizientzia... Friedmanen hitzetan abiapuntu horietatik irauliko zen hezkuntza. Ikuspegi termino guztiz ekonomikoetan eginkoa da, dirutan, errentagarritasun soziala, egiazko hezkuntzaren

eraginkortasuna, berdintasunaren funtsezko eskubidea eta beste batzuk albo batera utzita.

Aurrerago, ikastetxeak erabat merkatuen esanetara jartzeko Hoffmannek, Jaques Delors eta enpresa munduko beste zenbait eragilek konpetentzietan oinarritutako eredu bat indartzea proposatu zuten, modu horretan hezkuntza sistemek hobeto erantzungo baitzieten industria eta enpresa munduari langileen moldakortasuna areagotuz. Beraz, 90. hamarkadatik hona egun ezagutzen dugun gizarte zerbitzuen eredia horiei guztiei helduz eraiki egin da eta, funtsezko giza ezkubideen estatuen bermeak izatetik merkatuen negozio eremu berria eta handia izatera igaro direlarik.

Beraz, neoliberalismoak merkatuentzat aplikatutako arauak hezkuntzara ekartzea lortu zuen. Hezkuntzaren merkantilizazioarekin batera merkatu askearen arauak indartuz joan ziren. Ondorioak jakinak dira: eredu merkantilistak prekarietatea areagotu du lan munduan eta hezkuntzan pobrezia eta segregazio guneak modu kezkarrian zabaldu dira azken urteetan.

Mundu osoan hezkuntza publikoa jomugan dago, bereziki desarautze eta deszentralizazio politikak areagotu diren horietan. European segregazio mailak ikaragarri igo dira, baita Euskal Herrian ere. Aldiz, segregazioa neurtzen duen Gorard indizea abiapuntu duen Javier Murillo y Cynthia Martínez-Garridoren ikerketak (*Magnitude of school segregation by socioeconomic level in Spain and its Autonomous Communities and comparison with the countries of the European Union*) agerian uzten du pribatizazio politikak eta segregazioa eskutik doazela: *Decisiones tales como el fomento de mecanismos de cuasi-mercado potenciando opciones de elección de centro, por ejemplo, favorecen la segregación escolar (Taylor et al., 2003)*. Friedman, Thatcher eta Reaganen osagaiek porrot egin zuten hasiera-hasieratik eta aipatutako egoera gatazkatsu horiek hezkuntza eredu ultraliberal bat ezartzearen ondorioa dira, alegia dagoeneko lehertu egin diren sistemak dira. Friedmanen osagaiek kapitalisten beharrak asetzeko balio izan dute enpresa munduari eskulan merkea emanez eta estratifikazio soziala indartuz. Hezkuntza eredu honen porrota agerikoa izan arren, hezkuntza lan merkatuen menpe ipintzeko Europa mailako azken ahalegina Rethinking Educación estrategia (Bruselas 2012ko azaroan) izan da: *Europa necesita replantearse de forma radical cómo*

Hezkuntzaren merkantilizazioarekin batera merkatu askearen arauak indartuz joan dira. Ondorioak jakinak dira: eredu merkantilistak prekarietatea areagotu du lan munduan eta hezkuntzan pobrezia eta segregazio guneak modu kezkarrian zabaldu dira azken urteetan.

Hezkuntza eredu berri bat birpentsatu beharra dugu, egungo eskola publikoa abiapuntu eta ardatz duena; orain arteko ibilbideak eta herrialde aurreratuenetako esperientziak erakutsi baitigute hori dela herrigintza eredu aurrerakoi baterako aukera bakarra. Aldiz, hezkuntza eredu pribatu-itunduen gaitasun konpensatzailea antzua izan da. Egitasmo eta proiektu berekoiei erantzuten diete gizartea bere osotasunean baztertuz.


los sistemas de educación y formación pueden proporcionar las capacidades que necesita el mercado de trabajo. Estrategia hau LOMCEren eta Heziberriren (beraz, datorkigun hezkuntza lege berriarena ere) abiapuntu izan da. Azken hamarkadetan Hego Euskal Herriko agintariek eta sare pribatu-itunduko patronalek eredu horri itsu-itsuan jarraitzearen ondorioz, gure hezkuntza sistemak eztanda egin du: Europako segregazio maila altuenetarikoak dugu, emaitza akademiko kaxkarrak, erlijioen derrigortasuna hezkuntza sarearen % 30ean, etengabeko gatazka soziala, bai lan esparruan, baita gizartean ere...

Eta aurrera begira zer? Egunditugun hezkuntza sareen azken 40 urteetako ibilbideak etorkizuneko hezkuntza sistema arautzeko diagnostikoaren parte izan beharko luke. Agerikoa da sare itunduaren eta gobernu ezberdinen arteko klientelismo politikak ondorio jasan ezinak sortu dituela gure auzo eta herrietan eta horren ondorio dela, hein handi batean, eskola publikoa ere bere mugara heldu izana. Hezkuntza eredu berri bat birpentsatu beharra dugu, egungo eskola publikoa abiapuntu eta ardatz duena; orain arteko ibilbideak eta herrialde aurreratuenetako esperientziak erakutsi baitigute hori dela herrigintza eredu aurrerakoi baterako aukera bakarra. Aldiz, hezkuntza eredu pribatu-itunduen gaitasun konpensatzailea antzua izan da. Egitasmo eta proiektu berekoiei erantzuten diete gizartea bere osotasunean baztertuz.

Baina egoera oso korapilatsua da. Aipatu bezala Hego Euskal Herriko gobernu ezberdinen Hezkuntza politikek sare paraleloak sortu dituzte: itunak ez dira sare publikoaren beharren arabera moldatzen, ezta gizartearen benetako beharizanen arabera ere. Esaterako, 0-3 etapan umeentzako plazen eskaintzaren erdia bete gabe dago leku askotan. Hala ere, ikastetxe itunduetan dauden haurreskola pribatuek ikasleko diru laguntza jasotzen jarraitzen dute, auzoan edo herrian bertan plaza publikoak libre egon arren. Unibertsitatean, lanbide heziketan eta gainontzeko hezkuntza etapa ezberdinetan gauza bera gertatzen da. Etengabeko pribatizazio dinamika horrek kolokan ipini du eskola publiko askoren etorkizuna eta milaka langileren prekarizazio egoera areagotu du. Egoerari aurre egiteko **STEILASek** "sare publiko bakarrera" dokumentua plazaratu eta hezkuntza publikorako finantzaketa legea aldarrikatu du.

Jule Goikoetxeak (Argia, 2015ko uztaila) argi azaldu zuen: “Eskozian zein Katalunian diskurtsoa mudatzen ari da, jende gehienak ez du estatugintza lehen bezain hotz eta arrotz hartzen. Zergatik? Ditzosozko naziogintza edo herrigintza ongizatearekin lotzen hasi direlako. Euskal eskola publikoa, euskaraz bizi ahal izatea, gizarte zerbitzu egokiak jasotzea... naziogintza eta herrigintza izateaz gain, estatugintza dira! Ez gaitzen engaina, Hegoaldean estatu erakundeak dauzkagu, eta herri honek gizartetik sortua erakundetzeko joera historikoa du. Horregatik, kanpotik begirata, nabarmena da estatugintza itzela egin dela hemen. Diskurtsoan hitza txertatzea falta zaigu”. Garrantzitsua da gogoratzea 80. hamarkada hasieran Katalunian eragile abertzale eta ezkerreko gehienek eskola publiko katalanaren alde egin zutela apustu estatugintzarako ezinbesteko tresna gisa. Santa Coloma de Grameneten “txarnegoek” 1983. urtean aldarrikatutako eskola publikorako murgiltze ereduaren inguruan gertatutakoa ezagutzea ezinbestekoa da gaurko Katalunian errealtatea ulertzeko. Euskal Herrian bestelakoa izan zen errealtatea. Eskola publikoa inoiz ez da ezkerrearen benetako apustu izan. Etorkizunean ikustear dago. Hala ere, ez dirudi norabide aldaketarik izango dugunik. Ezkerreko sektore askotan, oraindik ere, ikastetxea aukeratzeko eskubidea, ikuspuntu pedagogista, deszentralizaioa edo eredu pribatu zehatzen aldeko defentsa ohikoa da.

Beraz, XXI. mendeko burujabetza prozesuek ongizatean oinarritutako praktikak eta diskurtsoak behar dituzte ezinbestean. Agerikoa da jendarte osoaren interes komunak eta herritar guztien ongizatea modu orekatu eta kohesionatu batean gauzatzea lortzen duen hezkuntza eredu bakarra publikoa dela. Baina ez du edozein hezkuntza publikok balio. Eskola publiko zabal bat behar dugu, ez soilik ikasleen erdiari erantzuten diona, lan baldintza duinetan oinarritutakoa, hezkuntza proiektu sendoak dituen, profesional konprometitu eta egoki formatuz hornitua, baliabide nahiko dituen eta, batez ere, ikastetxearen auzoko, herriko, errealtateari erantzuten dioten eskolak behar ditugu. Modu horretan bermatuko dugu soilik jendarte guztiaren ongizaterako funtsezkoa den abiapuntua. Ez dugu zertan araudi estatalen moldaketak itzaroten egon behar. Egunez egun, eskolaz eskola eta ditugun eskumenekin jarrai dezagun nahi dugun Euskal Eskola Publikoa eraikitzen!

Herrigintza, naziogintza ala estatugintza, berez, kontzeptu erabat hutsak izan daitezke askotan, benetako edukirik edo esanahirik gabeak, onak bezain txarrak garatu litezkeenak, justuak ala injustuak, baketsuak ala belizistak, berdintzaileak ala segregatzaileak. Herrigintza, naziogintza eta estatugintza oso baliotsuak dira soil-soilik egun daukaguna baino gizarte eta mundu hobekoak badakartzate. Historia zein geografia gertuan independentzia irabazi duten herrialde batzuetan handik eta urte gutxira sorturiko eredu sozial, politiko eta ekonomiko erabat injustuak ikustea besterik ez dugu, inguruan adibide ugari baditugu eta. Herriak, nazioak zein estatuak herritarron, gizarte orearen funtsezko giza eskubideak eta balioak eguneroko elkarbizitzan bermatzeko tresna eraginkorrak ez badira, ez dira ezer: askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, justizia soziala, barne kohesioa... Herria baino, nolako herritarrak; nazioa baino, nolako nazio-balioak; eta estatu baino, aurrekoetarako nolako egiturak eta bermeak. 

Unibertsitatea(ren) labirintoan barrena

Patxi Azpillaga

UPV-EHUko Ikus-entzunezko
komunikazio eta Publizitatea
saileko IRIa.

Hogei urte dira jada Bolognako prozesua abiatu zela, balizko goi mailako hezkuntzaren esparru europarra eratzeko asmoarekin. Unibertsitatearen berrikuntza pedagogikoarekin ere lotu izan zen prozesua urte haietan, edota Unibertsitatea gizarte beharrek hobeto lotzeko beharrek ere. Izan ere, nabarmenak ziren ordurako Unibertsitatearen zenbait aje, hala nola eredu magistral zaharkituen jardutea irakaskuntzan edota ikerkuntzan inguruko ekonomi eta gizarte beharretatik urrunduta ibiltzea. Baina Bologna gora, Bologna behera, aldaketak askozaz harago joan dira. Eta urte hauetan jasandako krisialdi eta berregituraketa ekonomikoa bitarte, orain, unibertsitatearen egitura, zeregina eta izaera bera dauzkagu kolokan.

Hain zuzen ere, azken urteotako politika unibertsitarioak gero eta gehiago etorri dira ekonomi, enplegu, industri eta lehiakortasun estrategiekin uztartuta eta merkatuan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politikek baldintzatuta. Eta, aldi berean, eta hori da batez ere gogoan hartzekoa, gero eta gutxiago aintzat hartuta Unibertsitatearen dimentsio soziala eta betebeharrak publikoak, demokratizatzailea eta berdintzailea. Paradigma aldaketa bat gauzatu nahi dela dirudi, hartara, goi mailako hezkuntzan, Unibertsitatearen gaurkotze, egokitze, modernizatzeko eta egungo errealitate ekonomiko eta sozialari ustez atxikitze aitzakiekin. Amaiera bidean jarri nahi dela hezkuntza unibertsitarioa pentsatu eta kudeatzeko modu bat, publikotasuna ardatz izan duena, Unibertsitate eta ikerketa gune pribatuen mesedetan. Albo batera utzi nahi direla Unibertsitatearen ikuspegi autonomo, kritikoa eta humanistaren zantzu ia guztiak, edo hain justu,

zenbaiten ustetan, funtzio konpentsatzaile hutsa baino izan beharko ez lukeen sistema publiko gero eta ahulago baten esku. Dagoeneko, ekonomi garapena eta eraginkortasuna publikotasunarekin eta berdintasunarekin bateraezinak izango balira bezala. Privatizazioak eta merkatu-lehiak bakarrik ziurtatuko balute bezala goi mailako hezkuntzaren ahalmena enplegua eta berrikuntza sortzeko. Helburu horiek erdiesteko, Fakultateak, laborategiak eta ikerketa taldeak enpresetara lotutako Eskola Politeknikoak edota Bikaintasuneko Ikerkuntza-Zentroak bihurtu beste biderik ez balego bezala.

Hain zuzen ere, ikusi besterik ez dago Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen bilakaera edota Ikerketa eta Unibertsitate planen nondik norakoak; baita Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Diputazioaren hirigintza eta garapen estrategia berriak ere, Unibertsitatearen eta ezagutzaren ekonomia berriaren inguruan ardaztuak. Aurrekontu publikoak erruz errekueratu dira krisialdiko jaitsieraren ostean, eta inoizko sarrera eta gastu kopuru handienetara heldu dira azken urteotan. Baina, hala eta guztiz ere, Unibertsitate publikoari egindako ekarpenak krisialdiko mailatan ia izoztuta geratu dira eta ez dira oraindik 2010eko kopuruetara itzuli. Bada, nonbait, orain, finantzaketa eta laguntza publikoa gehiago merezi duenik hezkuntza publikoak baino, adibidez Zorrotzaurre inguruan egoitza izango omen duten Unibertsitate eta ikerketa gune pribatuek. Haiekin bai eskuzabalak izateko asmoa dute Bilboko Udalak, Bizkaiko Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak berak ere. Haiekin, batipat, eta ez horrenbeste Unibertsitate publikoarekin, eraikiko baita, antza, Euskal Herriaren etorkizun ekonomiko oparoa.

Unibertsitate eta ikerkuntza gune pribatuek protagonismo berria irabazita, haiek eta unibertsitate publikoak elkarren arteko etengabeko lehian jartzea da orain gakoa, merkatuaren eskutik etorriko omen den balizko bikaintasunaren bila. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitate publikoak baino, Euskal Unibertsitate Sistema da euskal instituzioen unibertsitate politikaren eta planen helburua eta kokagunea. Baita, antza, Unibertsitatea eta Ikerkuntza hiriarren garapen eredu espekulatiboarekin konektatzea ere, Guggenheim efektuaren ostean, ustezko "Harvard" edo "Cambridge" efektu berri baten bila. Hark turismoaren eta ebentoen inguruko ekonomia eratzen

lagundu zuen moduan, orain Bilbo inguruan ezarriko omen diren inguruko zein nazioarteko unibertsitate eta ikerketa gune pribatuen eskutik ezagutzaren ekonomia berri bat aktibatzekeo esperantza itsuarekin, hezkuntza eta ikerkuntza batez ere errentagarritasun eta negozio eremu berri bihurtuta.

Unibertsitatearen privatizazioa

Privatizaziorako joera hau ez da berria Euskadiko hezkuntza sisteman. Ondo ezagutzen dugu jada maila ez unibertsitarioan, kontzertatutako eskolen bidez, baina hedatzen ari da orain Unibertsitatean ere. Are gehiago, ondo hedatuta dago dagoeneko, Unibertsitate pribatuetan matrikulatuta dauden ikasleen kopuruaren aldetik, oso gainerik baikaude, jada, % 24arekin, espainiar Estatuko batez-besteko % 15etik, eta, beraz, oso gainerik ere, Europako hainbat herrialdeetako balioetatik, hala nola Portugal edo Frantzia, hauek ere % 15aren bueltan mugitzen direlarik, edo Alemaniatik (% 9) eta Italiatik ere (% 10). Nolanahi ere, Nafarroako egoera are adierazgarriagoa da oraindik, han unibertsitate pribatuak, Opus Deiren Universidad de Navarrak, alegia, ikasleen % 61 bereganatzen baitu.

EHU da zalantzarik gabe Euskadiko erreferentziazko unibertsitatea, bai baliabideen aldetik bai ikasle zein irakaskuntza eta, behinik behin, ikerkuntzaren aldetik ere. EHUk 35.715 ikasle ditu graduatan matrikulatuta, 3.800 graduondoko masterretan eta berezko tituluatan, eta 2.858 doktoregoetan. DUk, berriz, 7.700 graduatan, 1.470 graduondoko masterretan eta 347 doktoretzan, eta MUK, 4.900 graduatan, 1.058 masterretan eta 576 doktoretzan. Ikerkuntzari dagokionean, EHUn egiten da ikerkuntzako argitalpen akademikoaren % 94a.

Baina, esan bezala, unibertsitate pribatuen pisua ere esanguratsua da, batez ere irakaskuntzari dagokionean (ikasleen % 18 eta % 7ren bueltakoa, hurrenez hurren, DUk eta MUK). Hain zuzen ere, azken urteotan, bai MUK bai DUk erraztasunak izan dituzte administrazioaren aldetik (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, hiriburu-udalak) hedapen politika esanguratsuak burutzeko, bai geografikoa (Donostia eta Bilbo aldean MUK, Bilbon, Donostian eta Gasteizen DUk) bai ikasketa eskaintzarena ere

Azken urteotako politika unibertsitarioak gero eta gehiago etorri dira ekonomi, enplegu, industri eta lehiakortasun estrategiekin uztartuta eta merkatuan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politikek baldintzatuta. Eta, aldi berean, eta hori da batez ere gogoan hartzekoa, gero eta gutxiago aintzat hartuta Unibertsitatearen dimentsio soziala eta betebeharr publikoa, demokratizatzailea eta berdintzailea.

(sukaldaritza, ekintzailtza, ingeniariak); aldiz, EHUk mugatuak ikusi ditu bere garapen estrategiak, eta haun zuzen ere, oztopo izugarriak gainditu behar izan ditu medikuntza fakultate berria aurerra ateratzeko. Hartara, ikasleen hazkunde esanguratsuak izan dituzte unibertsitate pribatuek ikaslerian, batez ere DUk, % 60 graduiko ikasleen artean eta % 39 graduondokoetan, 2011-2017 aldian; aldiz, MUren graduiko ikasleak % 20 hazi eta graduondokoak % 3 jaitsi dira 2013-2017 aldian. EHUren ikasle kopurua % 15 murriztu da graduatan eta % 5 hazi da graduondoko masterretan 2011-2017 aldian.

Eusko Jaurlaritzak aspalditik darabil, 2004ko Unibertsitatearen legea ezarri zuenetik hain zuzen, Euskal Unibertsitate Sistemaren kontzeptua, non, laurteko Unibertsitate Planen bitartez unibertsitateak integratu eta parekatu nahiko lituzkeen unibertsitate estrategia bakar baten baitan. Eta pixkana-pixkana, bide horretan aurrera egin du, lehia eta konkurrentzia dinamikak ezarriz unibertsitateen artean, gehienetan, unibertsitate publikoaren kalterako. Are gehiago, 2005etik hona ere, Unibertsitate Planekin batera kontratu-programak ere ezarri ditu Unibertsitate bakoitzarekin eta haien bidez diru publikoarekin lagundu eta finantzatu ditu ez bakarrik Unibertsitate publikoaren jarduerak baizik eta pribatuena ere.

Antzekoa gertatzen ari da ikerkuntzarekin ere, non, Zientzia eta Ikerkuntzako Euskal Sistemaren aitzakiarekin, Ikerbasque (talentua erakartzeko erakundea), BERK (Bikaintasunezko Ikerkuntza Zentroak) eta CIC (Ikerkuntza Kooperatibiko Zentroak) egituretara, enpresetara eta unibertsitate pribatuetara bideratzen dituen gero eta gehiago Eusko Jaurlaritzak finantzazioak eta inbertsioak.

Nafarroaren kasuan are gordinagoa izan da tradizionalki unibertsitate pribatuaren aldeko jokabide instituzionala. Nafarroako Unibertsitateak abantailazko posizioa mantendu du 1987an sortu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrean, eta horren ondorio da ikasleriaren gehiengoak unibertsitate pribatuan ikasteak. Gobernu aldaketak Nafarroako Unibertsitate pribatuaren mesederako politiken amaiera ekarri du eta unibertsitate publikoaren aldeko politika berrien ezarpena, hala nola urte anitzeko plangintza ekonomikoa edo Medikuntzako Fakultate publiko berriaren irekiera.

Unibertsitate publikoen aurrekontuen murrizketa

Azken urteotan, 2012tik 2015era, bai EHUren bai NUPen aurrekontu murrizketek, % 11 eta % 5 hurrenez hurren, espainiar estatuko unibertsitate publikoen murrizketak gainditu dituzte. Urte horietako ekarpen publikoaren bilakaera, berriz, espainiar batez bestekoaren azpitik egon da, modu nabarmenean gainera: espainiar estatuan % 4,8 hazi zen inbertsio publikoa, EAEn % 0,11 bakarrik, eta Nafarroan % 1,2 jaitsi zen. Azken urteotako susperraldiak, berriz, oso txikiak izan dira EHU (ez dira % 1era heldu, ez 2016an ez 2017an, eta 2009an 2,9koa izango da) eta zertxobait esanguratsuagoak NUPen (% 3 eta % 5 bitartekoak). Urte horietan aurrekontu publikoek gora egin duten arren, unibertsitate publikora bideratutako inbertsioak bere horretan mantendu dira ia-ia, krisi aurretiko mailetara heldu gabe.

Hala eta guztiz ere, esanguratsua izan da EHUk batez ere egin duen ahalegina finantzazio publikoaren eskasia ikasleen bizkar gainean ez uzteko, matrikulen prezioak eta tasak izoztuz. Ondorioz, kontzeptu honetatik sarrera galera handiena izan duen unibertsitatea izan da espainiar estatuan: % 9ko galera 2012. eta 2015. urteen artean. Hori bai, honen guztiaren ondorioak izan dira inbertsio berriei ekiteko baliabiderik eza eta irakasleriaren prekarizazioa eta bitarteko izaera areagotzea (batez ere, gazteenena).

Ikasketen merkantilizazioa

Garai bateko bost edo sei urteko lizentzien ordeztasun (gehienetan lanean hasteko nahikoak zirenak), graduak ezarri dira orain, laburragoak, lau edo hiru urtekoak. Laburtu egin da, hartara, goi mailako sistematik ikasleentzat merkeena zen etapa, eta haren ondoan, gradu bikoitzak, graduondo luzeagoak eta bizi osorako prestakuntza eskaintza berria eta zabala ari dira indarrean jartzen, bata zein bestea guztiz derrigorrezkoak orain, lan merkatuaren eskakizunetara egokitzeko. Alderatu besterik ez dago espainiar estatuan gradu eta graduondoko (masterrak batez ere) ikasketetan izan den bilakaera. Graduetako ikasleria, ez gora ez behera, egonkor mantendu bada ere azken

Azken urteotan aurrekontu publikoek gora egin duten arren, unibertsitate publikora bideratutako inbertsioak bere horretan mantendu dira ia-ia, krisi aurretiko mailetara heldu gabe.

urteotan (milioi eta laurehun mila / milioi eta hirurehun mila ikasle bitartean), graduondoetako hirukoiztu baino gehiago egin da 2007tik 2016ra (35.000tik 152.000ra). Aipatzekoa da ere unibertsitate pribatuek askoz sarbide handiagoa dutela graduondoko ikasketan graduatzen baino, unibertsitate publikoekin alderatuta. Hartara, espainiar Estatuan graduondoko ikasleen % 33k ikasten dute pribatuan, graduoen % 18arekin alderatuta. Baina Euskadin pribatuen pisua % 40raino igotzen da maila honetan. Masterretan areagotu egiten da, hartara, unibertsitate pribatuen segregazio eta bereizketa funtzioa. Goi-mailako hezkuntza diru kontua bihurtzeko arriskuan da ikasleentzat, eta bizi osoko prestakuntza, etengabeke negozioa unibertsitateentzat, batez ere pribatuentzat.

Ikasketen antolamenduan ere nabarmena da merkantilizazioa: ikasketen espezializazioerako joera, enpresen, produktioaren eta konkurrentziaren beharretara gero eta makurtuagoa. Ezagutzak baino trebeziak dira gaur egun garrantzitsuagoak eta unibertsitatean garatu beharrekoak, edukiz hustuz askotan unibertsitatea. Hezkuntza unibertsitarioak helburu publikoei baino (unibertsaltasuna, hiritartasuna, ezagutza...) behar pribatuei (enplegarritasuna, profesionaltasuna...) erantzuten die gero eta gehiago. Are gehiago, enpresak zuzenean sartzen hasiak dira unibertsitateetan, baita publikoetan ere, prestakuntza antolatzen eta batzuetan baita eskaintzen ere (enpresa gelak, uda ikastaroen babesak, enpresetara lotutako masterrak, prestakuntza duala...). Prozesu hau areagotu egingo da etorkizunean on-line eta bizi osoko irakaskuntzarekin. Gradu gero eta laburragoak, hiperespezializatuak, mikrograduak, trebezia jakin eta zehatz batzuk eskuratzera bideratuak, sarbidea emango dutenak etengabe aldatzen ari diren lanbideetara.

Kudeaketa modu gerentzialen ezarpena

Unibertsitateak kudeaketa diskurtso eta modu berriak ari dira barneratzen eta indarrean jartzen, enpresetako *management* printzipio eta irizpideetan oinarritutakoak neurri handi batean. Orain, den-dena irizpide ustez objektiboekin neurtu eta emaitzen arabera sailkatu beharra dago, ez horrenbeste gabeziak identifikatu eta hobekuntzak proposatzeko, baizik eta irakasleen eta unibertsitateen arteko lehia eta konkurrentzia dinamikak ezartzeko. Kalitate eta bikaintasun emaitzen arabera izango dute orain irakasleek aukera karrera akademikoa egiteko, soldatak hobetzeko edo ikerketa proiektuak zuzentzeko. Eta unibertsitateek ere irizpide berberen arabera ikusiko dituzte baldintzatuta ikasleen matrikulazioa, ikerkuntza kontratuetarako sarbidea eta, azkenik, baita finantza sarrerak ere. Horretarako zenbait mekanismo ezarri dira: ebaluazio agentziak eta programak (ANECA eta CNEAI espainiar estatuan, UNIBASQ, Euskadin) eta rankingak, unibertsitateak hainbat irizpideren arabera sailkatzen eta ordenatzen dituztenak (Shangai, The Times, CINDOC, Scimago...).



Irakasle-ikertzaileen eta unibertsitateen arteko konkurrentzia dinamika hauek gero eta nazioartekoagoak, gero eta globalagoak dira, mugikortasunak hura errazten baitu. Hartara, unibertsitateen erreferentzia markoak gero eta gehiago izan behar du nazioartekoa, bai irakaskuntzari bai ikerkuntzari dagokionean. Orain, atzerriko ikasleak erakartzea funtsezko estrategia da unibertsitateentzat, hori baita haien eraginkortasuna neurtzeko irizpideetako bat. Horrek ingelesaren eta hizkuntza handien alde egiten du eta kolokan jartzen du hizkuntza txikien biziraupena, batez ere ikerkuntzan.

Bestalde, gero eta handiagoa da, baita, gobernantza erakundeen eragina, Gizarte Kontseilu eta Unibertsitate Kontseiluenak batez ere, non presentzia zuzena duten enpresariak eta politikariak. Gestioaren zati bat unibertsitatearen ahalmenetik kanpo gelditu da, eta berez positiboa izan beharko lukeena (eragile sozialen parte hartzera zabaltzea) kudeaketa modu ilun eta kontrolatzaileak ezartzeko bide bihurtu da. Horren adibide dira Unibertsitate Planak edo kontratu programak, zeinak itxuraz gardentasuna eta egonkortasuna ekartzekoak baziren ere unibertsitatearen finantzazio eta kudeaketara, errealitatean, EHUren kasuan behintzat, finantza zigorra eta ziurgabetasuna (unibertsitateak aurreratu beharra, gastatutakoa berreskuratzeko ziurtasunik gabe) eta inbertsio konpromisoen ez betetzea (Medikuntzako Fakultate berria) ekarri baitituzte.

Joera berri honen azken pausoa izan da Eusko Jaurlaritzak hezkuntza eskaintzak hiru irizpideren arabera ebaluatzeko ezarri nahi duen akreditazio sistema berria. Hartara, ikasketa guztiek irizpide hauen arabera ebaluazioen bat jaso beharko dute: enplegarritasuna, metodologia pedagogiko berritzaileen erabilera eta nazioartekotzea. Guztiek jasoko dute lortutako ebaluazioaren arabera kalifikazioa: oinarritzkoa, ertaina edo bikaina. Helburua argi dago, unibertsitateak elkarren artean lehian jartzea. Helburuak ezarrita, unibertsitateen izaera publikoa edo pribatua bigarren mailan geratuko da. Seguruenik, unibertsitatean ere hezkuntza kontzertatu sistema berria ezartzen hasteko lehenengo pausoaren aurrean gaude. 🖱️

Euskadiko lanbide heziketa (Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide heziketa duala)

Kepa Zamalloa eta Rafa Beloki
Lanbide Heziketako irakasleak.
Steilaskideak.

Egungo Euskadiko Lanbide Heziketaren zantzuak segituz gero, berehala konturatu gaitezke azken boladan gizartean hedatzen ari den gai bat dela. Hedabideetan, goi mailako politikarien zein enpresarien diskurtsoetan eta azalpenetan entzun eta ikus ditzakegu LHri buruzko hainbat gai jorratzen edo/eta gizarteko hainbat esparru LHrekin lotzen.

Euskadiko LHk bide luzea egina du eta “isilean” belaunaldi ezberdinetako milaka eta milaka langile prestatu izan arren, egun “bonbo” handia ematen ari zaio. Inoiz baino gehiago, LHren inguruan interes handiak daude.

Euskadiko Lanbide Heziketaz idazterakoan, mila gai desberdin aztertu daitezke: LHko Espezialitateen Planifikazioa, LH eta euskalduntzea, Ikastetxe Publikoen artean “ikasle lapurtzea”, Oinarrizko LH, Tknika eta bere “inguruan” sortutako Erakundeen funtzioak eta betebeharrak, Ikaslanen betebeharra, Ikastetxeko Zuzendaritzak eta “Teknokrata” berrien arteko harremanak, Gizarte Kontseilua organo erabakitzaile bezala, Kalitatea versus Bikaintasuna, LHko ikastetxeko Departamentuetan dauden arazoak eta lehia, Lanbide-espezializazioko Programen helburuak, Euskadiko LH eta neoliberalismoa, LH eta Industria 4.0, LH eta Pribatizazioa, Hezkuntzako LHko Sailburuordetzaren gidaritza mota... Eta ezin ahaztu geroz eta astunagoak diren LHko langileriaren lan kargak eta lan baldintzak!

Ikusten dugunez badago zer hausnartu, baina bat aukeratu beharra dago, eta posible bada asmatu behar da zein den momentuko “izarra”. Eta hara non, “**LH DUALA**” aukeratu dugu, garrantzia “handia (izugarria)” omen du, bestela Lanbide Heziketako zein atalak du “*Euskadiko LH DUALAren web-orri espezifikoa*”. Hain inportantea da? Eta hala bada, zerk justifikatzen du interes hori?

**Euskadiko LHk bide luzea
egina du eta “isilean” belaunaldi
ezberdinetako milaka eta milaka
langile prestatu izan arren, egun
“bonbo” handia ematen ari zaio.
Inoiz baino gehiago, LHren
inguruan interes handiak daude.**

Aurkezpena

Lanbide Heziketaren bidez gazteen langabezia-tasa handiak arintzeko neurriak sustatzeko, eta gazteen lanbide-kualifikazioa eta espezializazioa bultzatzeko, ikastetxeko irakatsi eta ikasteko prozesua eta enpresan lan egitea eta ikastea uztartzearen bitartez.

Urte hauetako krisi ekonomikoaren testuinguruan, Europar Batasuneko herrialdeak hainbat ekintza gauzatzen ari dira, ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketaren bidez gazteen langabezia-tasa handiak arintzeko neurriak sustatzeko, eta gazteen lanbide-kualifikazioa eta espezializazioa bultzatzeko, ikastetxeko irakatsi eta ikasteko prozesua eta enpresan lan egitea eta ikastea uztartzearen bitartez.

Hezkuntzak prestatutako aurkezpen hori irakurriz gero, lehenik eta behin konturatu gaitezke zein “garrantzitsua” den administrazioarentzat LHko esparru guztiak euskalduntzea; hori alde batera utzita, agerzten dena sinesten badugu, ezin dugu ukatu “LH-ko izarra” dela. Eta helburuak irakurtzean, edozein gaien aurretik jarri behar dugu sistema-programa hau.

Sistema-programa honek gizartearen garapenerako zelako garrantzia duen pentsatu dezakegu, are gehiago, EAEko gazteen lan merkaturatzea oso garrantzitsua dela pentsatu dezakegu, baina erpinez josita dagoen sistema da Duala. Hausnarketa txiki bat eginez ikuspuntu ezberdinak aurki ditzakegu. Alde batetik politika neoliberalak garatzen dituen gure EAEko administrazioarenak, zeinek enpresen onurak bilatu eta estatistika onak plazaratu nahi dituen; besteak beste oso kontent dago ere Confebaskeko lehendakaria den Roberto Larrañaga:

LH Dualaren eredia zabaltzeko ahaleginak areagotu egin behar dira. Confebask aliatu estrategikoa da. Gazteak lan-merkatuan sartzeko tresna ezin hobea eta gaur egun bere garrantzia denentzat esanguratsua da.

Bestetik, beste bi interes multzo nabarmen ditugu, lehenengoan LHko institutuak eta haien mintegiak, zeintzuk orduak lortzeaz gain (1,2 ordu ikasleko, gehienez izanik 10 ordu taldeko, nahiz eta esleitutako lan prestakuntza orduak murriztu diren), ospea eta matrikulazioa lortu nahi dute –geroz eta bortitzagoa bilakatzen ari den institutuen eta mintegien arteko lehiakortasunean murgilduz–. Bigarren multzoa ikasleek eta familiek osatzen dute, Dualean askotan aukera paregabea ikusten dute, ikasi eta soldata bat kobratzen delako batera eta garrantzitsuena, programa bukatu eta gero enpresan gelditzeko aukera aurreikusten dutelako. Azkenik aurki dezakegu langilea bera, esku tartean duen amestutako pagotxa luzarora dasta ezin bihurtzen dena.

Ikasle/langilea enpresariaren eskutan dago. Ez dezagun ahaztu, enpresariak erabaki dezakeela prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua egin edo langilea bekadun bihurtu. Horren arabera langileak eskubide gehiago edo gutxiago izango ditu, bere prekarietatea areagotuz eta kontutan hartuz ere, lanbide arteko gutxieneko soldata (2018 urtean 735,9 Euro gordin) edo enpresak duen hitzarmenaren kategoria baxuenaren soldata kobratuko duela –betiere, egindako lan orduen arabera–. Egoera horretan, ziklo eta gela berdineko bi ikasle/langile, sektore berdineko enpresa ezberdinerako doazenean, askotan, batak besteak baino askoz gehiago kobratu ahal du, bati hitzarmena ezarri eta besteari lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzen baitiote. Horrela, betiere Jaurilaritzaren datuen arabera, 8 orduko jardunaldian, batz besteko ordainsari gordina, hilabetean 797 eurokoa da.

Gogoratu dezagun ere, enpresariari zer onura ekar diezaiokeen horrelako langilea enpresaratzeak: bere beharrei egokitutako langile gaitu/aditua prestatzen du, hobariak jasotzen ditu, soldata baxuak ordaintzen ditu, langilearen kualifikazioa ad hoc lor dezake... Adibidez, 250 langile baino gutxiagoko enpresa batek ez du langile hauen gizarte segurantzarik ordaindu beharrik eta langile gehiagokoek % 25 besterik ez, 2.000 euroko diru laguntza jasotzen du, prestakuntza eta tutore lanaren hobariak ere jaso ditzake. Horri

gehitu behar zaio, Dualeko kontratua bukatzerakoan, praktiketako kontratua egin dezakeela beste bi urte luzatuz egoera (2/2015 EDa, Estatuto de los trabajadores, 11. artikulua) edo behin Duala bukatuta kontratu mugagabea eginez gero, 1.500/1.800 euroko diru-laguntza jaso ondorengo 3 urtetan.

Horrez gain, langilearen kaleratzea gertatuz gero enpresak ez du diru laguntzarik galtzen eta kontratua amaitzerakoan kalte-ordainik ez dago (1529/2012 Errege Dekretua); hau bai pagotxa.

Aipatu behar da ere, sistema Dualean pribatizazioa nola areagotzen den, 1529/2012 EDak, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuk arautzen dituenak, bere 3. artikuluan ahalbideratzen du Dual sistema osoa eskusiboki enpresan egitea:

Artículo 3. Modalidades de desarrollo de la formación profesional dual.

e) Formación exclusiva en la empresa, que consiste en que la formación se imparte en su totalidad en la empresa de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 18.4.

Artículo 18. Red de centros de formación profesional.

4. La formación inherente al contrato para la formación y el aprendizaje también se podrá impartir en la propia empresa cuando disponga de instalaciones adecuadas y personal con formación técnica y didáctica adecuada a los efectos de la acreditación de la competencia o cualificación profesional, sin perjuicio de la necesidad, en su caso, de realización de periodos de formación complementaria en los centros de la red mencionada. En todo caso, la empresa deberá estar autorizada para ofertar la formación de ciclos formativos y/o acreditada como centro para impartir la formación dirigida a la obtención de certificados de profesionalidad, para lo cual deberá reunir los requisitos establecidos en la normativa de aplicación, así como las condiciones que puedan determinar las Administraciones educativas y laborales en el ámbito de sus competencias.

Horrelako praktika oraindik ohikoa ez bada ere, ikusteke dago zein bide hartzen duen aurrerantzean, atea honezkero irekita baitago.

Hau guztia abiapuntu gisa hartuz, has gaitezen galdera batekin, Lanbide Heziketako ikasle guztiek sistema-

Ziklo eta gela berdineko bi ikasle/langile, sektore berdineko enpresa ezberdineran doazenean, askotan, batak besteak baino askoz gehiago kobratu ahal du, bati hitzarmena ezarri eta besteari lanbide arteko gutxieneko soldata ezartzen baitiote.

programa honetan parte hartzeko aukera berdina al dituzte?

Jorge Arevalok, LHko sailburuordeak, 2017ko LHko nazioarteko jardunaldietan, 2017-18 ikasturtean Dualean izandako ondorengo datuak eman zituen: 51 ikastetxe publiko eta 46 ikastetxe itunpeko, 895 ikasle publikoan eta 909 itunpekoetan eta 1.023 enpresa parte hartu dute EAEn sistema-programa honetan. Ez dezagun ahaztu, 2020rako 5.000 enpresa eta zikloetako 7.000 ikasle Dualean parte hartzea Jaurilaritzaren helburua dela. Ikastetxeetako errealitateak adierazten duenagatik “ikasle hoberenek” (notak, autonomia, jarrera, lan egiteko gogoak...) parte hartzen dute sistema-programa honetan. Beraz, “orokortzen edo/eta zabaltzen denean” (gertatzen baldin bada) zer gertatuko da?

Badirudi hasiera 2012-2013an izan zela (orduak programak Hezibei izena zuen), orduko eta gaur egungo egoeraren arteko bilakaera ikusiz, datu bitxi bat agertzen da, hasierako urteetan parte hartzaile gehienak ikastetxe publikoetako ikasleak ziren, aipatutako web-eko datuen arabera, azken bi urteetan aldiz, ikastetxe pribatuak nagusitzen ari dira, zer ondorioztatu daiteke?

Zalantzak daude orokortuko ote den, izan ere, subentzioei eusteko inbertsioa handia egin beharko litzateke. Subentzioak bukatzerakoan, onartuko dituzte enpresarioek ikaslerik bere kargupean? Edo, Jaurilaritza enpresa guztien diru laguntzaz kargu egingo da? Sailburuordetatik ez dute azaldu guztira parte hartu ahal izango duen ikasle kopurua zein den.

Aipatu behar da ere, sistema Dualean pribatizazioa nola areagotzen den, 1529/2012 EDak, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak arautzen dituenak, bere 3. artikuluan ahalbideratzen du Dual sistema osoa eskusiboki enpresan egitea.

Badago ere beste galdera bat kontuan hartzeko, nolatan, ia kritikarik gabe, ikastetxe guztiak sartu dira sistema-programa honetan hain baliabide gutxirekin? Zergatik hartu dituzte “sasi-Lanbide” ren funtzioak? Noiz arte langileriak hartuko ditu bere gain bereak ez diren lan kargak?

Ikasleek ere badute zer ikusia gai honetan, hain “langile-merke” izatea onartzearen zergatia aztertzeko kontua litzateke. Zerikusia izango ote du bizi dugun “krisiak”?

Dirudienez, hezkuntzak “pertsona kritikoak” egiten lagundu behar omen du, Lanbide Heziketak, behintzat, ez dirudi lortzen duenik.

Gogoratu behar dugu LOGSE garaian egon zen eztabaida “Alemaniako Sistema Duala” zela eta ez zela. Urte haietan guztiz kontra agertu ziren LOGSEren oinarriak finkatzen ari zirenak, Lanbide Heziketa “Hezkuntza” gisa ulertzen zelako eta ez hainbeste “sasi-Lanbide” gisa; beraz LHk ikaslea hezi egin behar zuen eta enpresek espezializatu, partekatu behar ziren lortu nahi ziren helburuak. Sare sozialak begiratzen baditugu eta prentsa ere, Euskadiko LH “bikaintasunean” dagoenez, Euskaditik kanpo, “gure estilo hau” izan beharko luke beste herrialdeetan ezarri beharrekoa.

Orain badirudi enpresarioen “neurri” egokitu behar dela Lanbide Heziketa, beraiek agintzen dute zein ikasle mota “lortu” behar den, eta Dualaren bitartez hauen espezializazioa LHren ardura da, nahiz eta enpresarentzako –batez ere Euskadin dauden enpresa

haundi eta multinazionalentzako–, ad hoc berariazko kualifikazioak IVAC-EEIk sortu.

Dualaren bitartez enpresarioek “casting-a” egiteko aukera dute, urtebete gutxienez bertan lan egin eta gero, horretarako diru laguntza jasoz. Zertarako “pribatizatu” Lanbide Heziketa? Gaur egungo LHko egitura bai Zuzendaritza aldetik, bai Gizarte Kontseiluaren osaketa aldetik, bai beste Ikastetxe Publikoen arteko lehiaren aldetik... nahiko kudeaketa “estilo” pribatua dela esan genezake.

2016ko uztailaren 27ko aginduak, Euskadiko Lanbide-espezializazioko lehenengo zazpi programak baimentzen eta baldintza orokorrak ezartzen dituenak, Dualarekin sistema-antolaketan antza handia du, berez Euskadiko Dual sisteman txertaturik daude horiek. Ikusi:

3. artikulua.– Garapena.

1.- Programa hauek, lehenetsunez, lanbide-heziketako zentroen eta enpresen artean jarduerak txandakatuz garatzen dira.

Lanbide-espezializazioko programa bakoitza martxan jartzeko planifikazioan berariaz zehaztuko da programa bakoitzak lanbide-heziketako zentroetan nahiz enpresetan izango duen garapena, eta, edonola ere, programa bakoitza emateko modu, megitura eta baldintzen definizioa zainduko da.

Berriz ere enpresarioen “neurri” egindakoa, baina badago beste “kutxu” bat Unibertsitatearekiko lehiarekin (edo harremanekin?) zer ikusia eduki dezakeena. Zein da programa hauen helburua?

Enpresarioen “neurri” esaterakoan diru publikoaren erabileraz ari gara! Kontuz!

Espezializazio programa hauetan langilea beti beka-duna da, 3 urteko Dual sistema modalitate honetan kontratu eskubidea galtzen baitu. Aipatutako aginduaren 2. artikulua lehenengo puntua irakurtzea merezi du, bertan berariazko programa hauen xedea azaltzen du:

2. artikulua.– Programen helburuak.

Programa hauek Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen-sektore estrategiko desberdinek eskatutako

Hezkidetzatik, pedagogia feministarantz

Nagore Iturrioz
Medeak.

*Itsusien baitatik idazten dut,
itsusientzat, atsoentzat,
mari-mutilentzat,
frigidoentzat, larrutan gaizki
jotakoentzat, larrutarako
inork nahi ez dituenentzat,
Virginie Despentes*

24

Aspaldi hasi ginen feministok berdintasuna sustatzeko lanketa propioak proposatzen ikas-tetxeetan. Gure proposamenari Hezkidetzat deitu genion, garai hartan ezin genuelako esan gaur egun harrotasunez aipatzen dugun FEMINISMO hitza. Gaur, gure aurrekariak egindako ibilbideak eman du bere fruitua, eta hurrengo pausoari ekiteko prest gaude.

Pauso hori pedagogia feminista martxan jartzea da. Erronka ez da makala, beraz argitu behar da testu honen helburua ibilbide horren zertzeladak ematea besterik ez dela. Berriari ekiteko aurrekoari begiratu behar zaionez, lehenik eta behin, genealogiari erreparatuko diogu, eta gure proposamena bere marko ideologikoan kokatuko dugu: transfeminismoan, alegia. Marko teoriko politiko horrek egiaztat hartzen ditugun hainbat kontzeptu astinduko ditu, eta hezkuntzara ekarri beharreko zenbait inperatibo ezarriko dizkigu. Gauzak horrela, zalantzan jarri beharko ditugu binarismoa, esentzialismoa eta pedagogia bera, gure hezkuntzarako proposamena hauxe izango baita: ardatza normaltasunetik harago eramatea, nolabait eguneroko praktikan transgresioa, gatazka eta deserosotasuna txertatzeko helburuz.

Aipatu den bezala, pedagogia feministaren marko teorikoa feminismo queer delakoaren barruan kokatu ohi da, zeinari, estatu espainolean, transfeminismo deitu izan baitzaio. Postfeminismo hitza ere erabiltzen da, baina “post” aurrizkiak duen konnotazioa dela-eta, testu honetan ez dugu halakorik erabiliko, gaur egungo korronteak ez baitira superatu den fase baten ondorio,

ezta aurrekoarekin zerikusirik ez duten korronteak ere. Gure proposamena, aldiz, garapenaren ondorio da, ez du aurrekoa suntsitzen beste zerbait sortzeko; aitzitik, jarritako egituraren gainean eraikitzen jarraitzen du, hori eraldatuz, transfeminismoaren izpirituari jarraituz, gure borroka *continuum* gisa ulertuz, eta ez superatu beharreko etapak egongo balira bezala. **Noizbait ere ikasi beharko dugu egokitu zaigun Peneloperen patua apurtzen, utzi beharko diogu gaez josteari egunez desegiteko: egin dezagun saretuko gaituen mantu amaigabea.**

Gure gaurko proposamenari ekiteko ezinbestekoa da genealogia pixka bat egitea. Hezkidetzaren hastapenak 70eko hamarkadako feminismo erradikalean kokatu ohi dira, baina urrutiago ere joan gintezke. Simone de Beauvoir-ek argi utzi zuen, *Bigarren sexua* liburuan, generoa heziketaren bidez txertatzen dela gure gorputzean. Hausnarketa horrek eman zigun hezkidetzan lan egiteko abiapuntua, berdintasun formal zein errearen bila.

Urte batzuk beranduago, genero horren nortasuna zalantzan jartzen hasi ginen, edo bestela esanda, bi genero edo sexu soilik daudela problematizatu genuen. Monique Wittigek bere emakume izaera ukatu zuen, zergatik eta lesbiana izate hutsagatik, izan ere, lesbiana izanda, ez baitzituen emakumeen eginbeharrak betetzen. Eta, besteak beste, Sojourner Truth -ek, feminismo beltzaren izenean, “Ni ez al naiz akaso emakume bat?” galdetuko zigun. Horrek guztiak ipini zuen gaur egun queer teoria gisa ezagutzen denaren hazia, zalantzan jarriko baitzuen emakume izaera, identitatea suntsituz eta soilik estrategikoki aldarrikatuz, behin eta berriro.

Narrazio hori hezkuntzara ekarrita, ikus dezakegu gure lehen esku-hartzea sexu-genero sistemaren markoan izan dela. Ezinbestekoa zen curriculuma moldatzea, diskurtso pedagogikoa oso androzentrikoa eta patriarkala baitzen: liburuetako erreferenteak, esaldiak, familiaren irudikapena... Beraz, horixe izan zen gure lehen helburua: emakumeen bizipena txertatuko zituen diskurtsoak sortzea.

Hezkidetzak ikaragarritzko onurak ekarri ditu emakumeentzat, eta ezinbesteko tresna izan da pairatzen ditugun hainbat diskriminazioei aurre

Hezkidetzak ikaragarritzko onurak ekarri ditu emakumeentzat: orain, ordea, ikuspuntu hori zabaltzea dagokigu, opresioen interseksionalitatea landuz.



egiteko; orain, ordea, hezkidetzaren ikuspuntu hori zabaltzea dagokigu, klase ertaineko emakume zurientzako pentsaturiko feminismoa utzi eta opresioen interseksionalitatea bere baitan hartuko duen teoria bat behar dugu. Hori da, hain zuzen, Pedagogia feministak proposatzen duena: inklusioa, tolerantzia eta integraziotik harago joango den tresna bat lantzea. Helburua ez da errekonozimendua bilatzea, baizik eta hausnarketa normaltasunaren ardatzetik urruntzea, arrakaletan daudenak erdigunera ekarriz.

Pedagogia feminista. Zer da hori?

hezkidetzabizikidetzaren markoan kokagenezake, eskola inklusiboaren logikan. Inklusioa gure helburuetako bat izanik, argi dago ikasle anitzak klasean izateak ez duela bat-batean eskola inklusiboagoa bilakatzen. Benetako inklusioa gerta dadin, ikasle horiek klasearen parte sentitu behar dute, parte hartzeko eskubide berdina dutela jakin behar dute.

Hori lortzeko, proposamen erradikala behar dugu, arazoaren errora joko duena, begirada aldatzeko balioko duena, eta, horretarako, gure lehen xedea izango da praktika pedagogikoaren nortasuna bera zalantzan jartzea, praktika pedagogikoen generoa eta sexualitatea sortzen eta naturalizatzen baitute.

Nolabait ere, ikastetxeak erosotasuna bilatzen du, edo, Freud-en hitzetan esanda “pedagogiaren diskurtsoa gatazkatik at egiten da, zoriontasunaren edo konponbidearen logikan”. Gauzak horrela, bestea edo arraroa, zalantza sortzen duena, kanpoan geldituko da beti. Hezkuntzak ezagutza objektiboa sortzeko eremu bat izan nahi duen heinean, anbiguotasuna saihestu nahi du, eta, horretarako, normaltasunaren markoa erabiltzen du.

Jakina da hezkuntzak ezinbesteko garrantzia duela gure gizartean, baita berdintasunaren bidean egin be-

harreko aurrerapausoetan ere. Matxismoaren muturreko ondorio den erailketa bat gertatzen den bakoitzean, balioetan hezi behar dugula esan ohi da, baina ez da zehazten noren balioetan. Tentuz ibili behar dugu ikastetxeari maiz esleitzen zaion eraginkortasun magikoarekin, ikastetxeak ezagutza produzitzeko eta erreproduzitzeko eremuak baitira, eta argi baitago diskurtsoa eta praktika ezinbesteko elementuak direla edozein menderakuntza sistema mantentzeko.

Hezkuntzaren inguruko goraiamenak alde batera utziz, zentratu gaitez hezkuntzaren beraren tentsioetan. Alde batetik, ukaezina da gizarte kohesiorako tresna bat dela hezkuntza, ezinbestekoa dela pertsonak garatzeko, eta, ongizate gizarte batean, hezkuntza publikoaren eskubidea defendatu behar dugula. Gure kapital kulturalak eragina izango du gure biziraupenean, baita gure bizitzaren kalitatean ere. Baina, aldi berean, eskola bada doktrinatzeko eremu bat ere. Gure gaurko proposamena kokatzeko, aipatzekoa da Michel Foucaulten pentsamendua, hark paralelismo argia ikusten baitzuen, besteak beste, kartzelaren, eroetxearen eta eskolen artean. Haren hitzetan, gune horiek gizartea arautzeko domestikazio tresnak dira. Hark garden-garden ikusten zituen hiru horien arteko antzekotasunak, adibidez, prozedurei dagokionez: ordutegiak, jantziak edo araututako ekintzak. Filosofo frantsesak antzekotzat jotzen zituen, orobat, hiruren arkitekturak ere: pasilloak, gelak, aisialdirako esparruak. Ezin uka daiteke eskola gure gizartean nagusitzen diren iritzi eta ezagutzak transmititzeko elementua dela, familia, komunikabideak edo eliza bezain beste.

Hezkuntzak barneratzen dituen anibalentzien jabe izanik, gure konpromisoa izango da hezkuntza publiko ez diskriminatzaile, ez androzentriko eta ez heterosexista bat sortzea. Ez da erronka makala, horretarako hegemonia aztoratu beharko baitugu, zalantzan jarriz bi gorputz daudela, bi genero daudela eta horiek lotzeko sexualitate arautu bat dagoela. Soilik horrela ekin ahal izango diogu galderak egiteko uneari, eta ez ote da hori irakasle on eginkizuna?

Beraz, praktika honen helburua ez da, soilik, arautik ateratzen diren sexualitateak aitortzea, ezpada segurtasuna ematen duten logika bitarretatik aldentzea, hezkuntzaren oinarri den normaltasun kontzeptua

astintzea eta horren ondorio diren botere harreman anitzak kolokan jartzea: etnia, adina, genero, klase, sinesmena, kapazitismoa...

Argi dago logika bitarra aniztasunaren kontrako pentsamendua dela, bi aukera soilik izatea bizitza modu absolutistan irudikatzea baita. Gainera, bi aukera horien artean hierarkizazioa bortitza dago: alderdi bat araua da, eta bestea, berriz, "arraroa". Kontziente izan behar dugu arraroa desberdintasuna izendatzeko erabiltzen dela, hau da, normaltasunak bere kontrakoa behar duela existitzeko. Itzal-joko bat balitz bezala, arraroa, okerra edo bestea izango da normaltasunaren muga ezarriko duena. Honen adibide praktikoa gisa, gogoratu dezagun heterosexualitatea ez zela existitu homosexualitatea izendatu zen arte. Hortaz, botere harremana bi kontzeptuen talkan eta hierarkizazioan oinarritzen da: publiko/pribatu, barnea/kanpoa, normala/arraroa, egunerokoa/aztoragarria, hegoa/iparra, gorputza/adimena...

Logika bitar horiek apurtzeko estrategia eraginkorrena da identitateak eraldaketaren logikan ulertzea, *continuum* bat balira bezala, mugimenduan. Kontzeptualizazio horiek abstraktuak direnez, saia gaitezen gure kontestura ekartzen. Bestela esanda, normaltasunaren hertsitasunetik ateratzeko, guk geuk, irakasten dugunok, gorputzaren eta adimenaren arteko logika bitarra ere apurtu beharko dugu, inplikatu egin beharko dugu, ezinbestekoa baita bakoitzaren gorputza astintzea. Ezagutza fisikoki zein subjektiboki gorputzen baita. Hortaz, gure gorputza ere inplikatu beharko dugu prozesuan. Aipaturiko opresio logikek biak zeharkatzen dituzte eta: gure ikasleoren gorputzak eta gureak.

Konplexua badirudi ere, hau guztia ez da hutsetik asmatu behar, ikuspuntua aldatu behar dugu eta ez besterik, arraroa gure munduaren parte baita dagoeneko, ikuspegia birkokatu behar dugu, ez besterik. Helburua da ardatza mugitzea eta normaltasunaren eredutik harago doan curriculum bat lantzea, identitate desberdinentzat tokia egingo duen curriculum bat, hau da, desberdintasunean eta deserotasunean oinarriturikoa. Gorputz dislokatuak eredu izango dituen, curriculum bera dislokatuz.

Aitortzen dugu zaila dela dislokazio hori hezkuntzaren markoan txertatzea, konplexua baita hezkuntza bera

Hezkuntza publiko, inklusibo bat sortzeko, hegemonia aztoratu behar dugu, zalantzan jarri bi gorputz daudela, bi genero daudela eta horiek lotzeko sexualitate arautu bat dagoela.

zalantzan jartzen duen teoria bat praktikan jartzea. Baina argi izan behar dugu tresna hau konpromiso bat dela, deserotasuna sortzeko konpromisoa, hain zuzen ere, eta helburu horren existitze hutsa eraginkorra dela. Pedagogia Feministaren aitzindaria den Deborah Britzmanen hitzetan, konpromiso horren helburuak dira transgresioa, perbertsioa eta politika. Transgresioa, kategorien instituzionalizazioa zalantzan jartzen duelako, perbertsioa, erabilgarritasuna alde batera utzi eta desbiderapenean oinarritzen delako, eta politika, egungo praktika eta legeak astintzen dituelako.

Esan bezala, teoria bera eraginkorra da, gure gaitasun kritikoan eta gure mundua ulertzeko kontzeptualizazioan eragingo duelako. Baina, horretaz gain, zaila bada ere, saiatuko gara teoria horiek gorputzen, praktikara ekartzeko zertzelada batzuk ematen.

Azaldu dugun bezala, boterearen eta jakinduriaren arteko aliantzak zehazten du zer den onargarria, pentsagarria edo posible dena. Judith Butlerrek dioen moduan: "Beren existentzia posible dela dakitenez, luxu bat da bizitza posible batean pentsatzea. Oraindik posible bilakatze bidean daudenez, ordea, premia bat da".


Beraz, imposible diren ereduak txertatu beharko genuke ikastetxeetan, ulertzen ez duguna edo ezin uler dezakegunaren ereduak. Horixe egiten saiatu ziren, hain zuzen ere, Argentinan, 2006-2009 urteen artean. Trabestien kontzeptua erabili zuten anbiguotasunaren nortasuna aldarrikatzeko. Kontzeptu hori oso baliagarria da, guk helarazi nahi ditugun hainbat ideia jasotzen ditu-eta. Trabestiak gorputzen du izan/egon gatazka, trabestia ez da emakume ez gizon, ez da beti gauza bera, logika bitarraren tentsioak plazaratzen ditu

**Desberdintasunean eta
desorotasunean oinarrituriko
curriculum behar dugu.
Gorputz dislokatuak eredu
izango dituen, curriculum bere
dislokatuz.**

bere baitan. Argi dago, gaur egun, transexualitatea agenda politikoan txertatu dela, eta eragina izan duela gure hezkuntzan; nonbait, gatazka honetan, berdintasun formalaren alde ari gara borrokan, noizbait berdintasun erreala iritsiko denaren esperoan. Baina transexualitatearen aldarrikapenarekin bat egiten badugu ere, kontziente gara egiten diren politikek beste helburu bat dutela: arrakala normaltasunera ekartzea. Azken finean, ulergarria egiten zaigun gorputz bat sortu nahi da, gizon edo emakume, buruan edo gorputzean, baina logika bitar horien barruan.

Horrekin guztiarekin, transexualitatea munstrota-sunaren eredutik ateratzen saiatzen gara, baina gure proposamena, ordea, munstrota-suna bera aldarrikatzea da, indefinizioa, mugikortasuna... Horiek guztiak borroka tresna gisa ulertzea. Zurrumbilo bat osa genezake genero teknologiek: bizar, bular, izen, gona, praka, zakil edo alu, eta seguruenik ez dugu honen emaitza ulertuko, akaso ez zaigu atsegina egingo eta ziurrenik ez gara hori izendatzeko gai izango, baina, poliki-poliki, anbiguotasunaren eremura gerturatuko gara. Aipagarria da Argentinako ekimen honetan, ALITT elkartearekin batera egin zutela lan (Asociación de lucha por la Identidad Travesti y Transexual), curriculum-en sekula islatu ez diren trabestien bizipenak txertatu zirela, eta, dirudienez, ikasleek trabestismoak erresistentzia tresna gisa duen potentzialtasuna barneratu zutela.

Praktikan jarri den beste proposamen bat tolerantzia kontzeptuaren inguruko hausnarketa da. Nequén-en “toleratzea diskriminatzea” da lelopean lan egin zuten. Tolerantziak inplikatzeko duen pribilegio eta nagusitasuna salatzea zen helburua. Aldarrikapen horrek pribilegioren logikara ekartzen gaitu. Errazagoa da pairatzen ditugun opresioak ikustea, guk eragiten ditugunak ikustea baino; edonola ere, denok dugu pribilegioren bat norbaitekiko. Pribilegio horiek tolerantziaren erretorikan islatzen dira, non guk boterea baitugu bestea onartzek.

Esan bezala, oraingoan, zertzelada batzuk soilik emango ditugu, praktika posible dela azaltzeko. Argi dago luze jarrai genezakela pedagogia feministaren inguruko proposamenak egiten, baina gaurko helburua bide berri bat irekitzeko oinarriak jartzeko besterik ez da, esparru malgu eta ausartak sortzea, non ziurgabetasuna eta indefinizioa nabarmentzen baitira, normaltasun ereduaren ginetik. 

Nafarroako 0-3 aren korapilo askaezina

Amaia Zubieta Garciandia
eta Diana Bruño Artazcoz
Haur Hezkuntzako irakasleak.
Steilaskideak.

Nafarroako Haur Hezkuntzaren 1.go zikloaren egoera oso konplexua da eta inor ausartu ez denez eskua sartzeko eta erababiak hartzeko, gero eta korapilatsuagoa bihurtzen ari da.

Egoera aldatzeko itxaropen handiak genituen amaitu den legealdia hasi zenean. Aurreko urteetan gobernuak sustengatu duten lau partiduak bat zetozen 0-3 zikloaren aldeko Plataformak (non **STEILAS**ek aktiboki parte hartzen duen) defendatzen duenarekin: 0-3 doakoa, publikoa, unibertsala eta kudeaketa komuna Hezkuntza Departamentupean; eta gainera, hala jaso zuten beraien gobernu programan.

Zoritxarrez, nahiz eta 4 urte hauetan Hezkuntza arduradunekin eta talde parlamentarioekin bildu eta hitz onak entzun, ez da ezer aurreratu eta aukera paregabea galdu da.

Baina zertan datza arazoaren konplexutasuna? Korapiloak hari asko ditu: araudiak, azpiegiturak, kudeaketa, langileen prestakuntza eta lan baldintzak, hizkuntza trataera... Hori dela eta, hurrengo lerroetan hari bakoitza aztertzen saiatuko gara.

0-3aren eskaintza publiko urria

Nafarroko Gobernuak 7 Haur Eskola ditu, Corellan, Burlatan eta 5 Iruñean. Zortzigarrena, Lizarrakoa, itxi zen orain dela urte batzuk. Haur Eskola hauek Politika Sozialen Departamentupean daude. Nahiz eta ziklo honi izaera hezitzailea aitortu LOGSEtik,

haurzeindegia konzeptu asistentziala mantendu da orain arte.

Beste aldetik, 70 hamarkadatik Iruñeko Udalak eskaini ditu hainbat plaza auzo ezberdinetan. Une honetan 11 haur eskola dira.

Herri handietan: Lizarra, Tuteran, Tafallan... aspaldian ere sortu ziren Udal haur eskolak.

90 hamarkadatik, eta gehien bat 2000tik aurrera, hainbat herritan ireki ziren beste haur eskola publikoak. Planifikaziorik gabe burutu zen prozesua. Nafar Gobernuak finantziazten zituen eraikuntzaren gastu gehienak eta hainbat udalek eskaintza hori nahi zuten herrirako nahiz eta gero zailtasunak izan mantentzeko. Horrek ekarri du aztertuko dugun indarrean dagoen kudeaketa eredu maltzurra.

Oso modu desordenatu eta desorekatuan egin zen prozesua eta Nafarroako zonalde batzuetan distantzia gutxitan plaza eskaintza ugari dago, besteetan oso urria edo bat ez.

Hala ere, eskaintza unibertsaletik oso urrun gaude eta Nafarroak adin horretan estatuko eskolatzetara tasa baxuena du. Hori dela eta, haur eskola izateko baldintzak ez dituen 0-3 eskaintza pribatua haunditu da: ludoguarderiak, haurzeindegia, etxe-lagunak... Espazio hauek ez dute araudi zehatzik eta ez zaizkie eskatzen gutxieneko baldintzak haurrei arreta emateko.

Eredu Pedagogikoa eta hezitzaileen prestakuntza

1979tik Iruñeko Haur Eskolek bere *“norabide pedagogikoa”* hautatu zuten Loris Malaguzzi, Reggio Emiliako haur eskolen filosofiaren sortzailearen teoriak aplikatuz eta hiri honetako haur eskolakoekin harreman estuak mantenduz. Hezitzaileek prestakuntza sendoa izan zuten eta erreferente pedagogiko bihurtu ziren.

Geroztik, Nafarroko beste haur eskolako hezitzaileek ere gogoki jarraitu dute prestakuntza eta berrikuntzaren bidea. Azken urteetan, Pikler-Lokzy elkarteak Hungarian jasotako prestakuntzaren bitartez beste bultzada eman diote berrikuntza pedagogikoari.

Hezitzaileen kolektiboak prestakuntza handia du eta oso dinamikoa da, baina Hezkuntza Departamentua ez da bere gaitasunetaz baliatu ezta ere bere prestakuntzaren beharra asetu.

Ikastetxe publikoen finantziaketa eta kudeaketa

Adin honetako haurrei arreta egokia ematea geroko arazoaren prebentzio oso inbertsio interesgarria dela egiaztatu dute nazioarteko ikerketa askok. Baina noski, hori koste handikoa da eta politikoez ez dute kontuan hartzen epe luzerako errentagarritasuna, baizik epe laburreko emaitzak. Horregatik, nahiz eta *“hezkuntzarako eskubidea”* jaiotzetik aitortu, administrazioek soilik partzialki finantziazten dute zikloa eta gurasoek ordaindu behar dute gastu parte handi bat. Egia da azken legegaldian errenta baxuak dituzten familiei kuota jeitsi zaiela, baina doakotasunetik oso urrun gaude oraindik.

Haur eskola publiko gehienentzat titulartasuna udalekoena izan arren, udal gehienek ez dituzte eskolak zuzenean kudeatzen, enpresen edota langileen kooperatiben eskuetan uzten dira. Nafar Gobernuak parte bat finantziazten du, beste diru parte bat gurasoen kuotatik ateratzen da eta gainontzekoa udalek jartzen dute. Kudeaketa ez zuzenaren zergaiti bakarra “aurrezte” da, diru nahikorik ez dutelako zerbitzu mantentzeko edo, hobe esanda, ez delako beraien lehentasuna eta horretan ez dutelako hainbeste diru inbertitu nahi. Aurrezte horrek dakarrena hezitzaileen lan baldintzen prekarizazioa da. Batzuk lanaldi osoa lan eginez 900 euroko soldata besterik ez dute jasotzen.

Kudeaketa eredu horrek arazo ugari ekarri ditu: hezitzaileen alde egitea ahal dutenean kudeaketa publikoko ikastetxeetara lan baldintzak hobetzeko; ziurgabetasuna, isolatzea eta proiektuak ez konpartitzea lizitazioa urte batzuetarako besterik ez baita eta agian beste eskolako langileekin lehiatu behar da; baliabide pedagogikoen galera ikastetxe bakoitzean administrazio lanak egin behar baitira...

Hasieratik egiaztatu ziren arazoez gain beste berri batzuk sortu dira: lizitazio berriak eta langileen subrogazioaren ingurukoak; baldintza egokiak bermatu gabeko berpublikazioak...

Udal gehienak haur eskolak Nafar Gobernuak zuzenean kudeatzearen aldekoak dira eta Politika Sozialaren Departamendua bere haur eskolak Hezkuntzara pasatzeko zain dago, baina Hezkuntzan beste aldera begira daude.

Hezitzaileen lan baldintzak

Nafarroako hezitzaileen kolektiboa oso urrundago “Lan berdina soldata berdina”-ren printzipiotik. Kudeaketa zuzeneko haur eskoletako hezitzaileek lan baldintza askoz hobekiago dituzte kudeaketa ez zuzenekoak baino, baina horien artean ere ezberdintasun ugari daude ez bakarrik soldatetan baizik eta osagarrietan, oporrak, ordutegiak, prestakuntza orduak...


Gradu edo goi mailako teknikariaren titulua eskatzen den lan batean ez lirateke onartuko eskaintzen diren lan baldintzak langile gehienak emakumeak izango ez balira. Argi dago generoaren diskriminazioaren aurrean gaudela. Feminismoak salatzen duen bezala, zaintzari eta heziketari ez zaio behar den garrantzia ematen.

Kolektiboa sakabanaturik egoteak oztopatzen du eskubideen defentsan aritzea. Iruñeko Udal patronatoko langileek badute bere lan batzorde propioa, baina gainontzeko udaletako langileek arazoak dituzte beraien lan baldintzak defendatzeko. Kudeaketa komuna ezinbestekoa da haur eskoletako langileen lan baldintza duinak lortzeko denontzat.

Araudiak, ratioak eta eskolen baldintza fisikoak

2007an argitaratu zen dekretuak arautzen zituen 0-3ko ikastetxeen baldintza fisikoak, ratioak, hezitzaileen titulazioa... eta ematen zen epe bat haur eskolek egokitzeko eskakizuneei finantzazioa bermatzeko. Desadostasuna plazaratu genuen ratio altuak zirelako eta baldintza fisikoen eskakizuna gutxiegi.

Udal batzuk bete zuten eginbeharra, beste batzuk, Iruñekoa beraien artean, ez zituzten eskola guztiak egokitu. Gobernuak, estutu ordez, aldatu zuen dekretua, behin behinean, eskakizunak leunduz eta



ratioak igoz. Mobilizazioak izan arren egoera hori luzatu egin zen. Orain, teorikoki, 2007ko eskakizunak indarrean daude baina salbuespenak onartzen dira.

Araudien interpretazioan irizpide ekonomikoak eta ez pedagogikoak nagusitu dira urteetan. Ratio altuaz gain, salbuespena izan behar zuten talde mistoak, adin ezberdineko haurrekin osatutakoak, arruntak bihurtu ziren; matrikulen epearen malgutasuna itxi zen moduloak gutxitzeko asmoz...

Hizkuntzen trataera

Iruñean euskarazko eskaintza oso mugatua izan da beti, hamarkadetan haur eskola batean soilik eskaintzen zen eta gero bitan, baina biak auzo berberan kokaturik. Ingeleseko programak ezarri ondoren Haur Hezkuntzako 2. Zikloan eta Lehen Hezkuntzan hedatu ziren ere 0-3ko hainbat Haur Eskolelatan, Hello izendatu zirenak, eta kanpoko kudeaketara esleitu ziren. Urte batzuk pasatu ondoren kudeaketa eredu aldatu zen, zuzenekoa bihurtuz, baina gaztelaniazko programak ingeleseko jarduerekin ez ziren desagertu. Are gehiago, eskaera-eskaintzaren justifikazioa dela eta finkatu dira eta epe labur batean aterako diren plaza finko askotarako ingeleseko perfila eskatuko da. Azken legegaldian euskarazko eskaintza beste bi ikastetxetara zabaldu da, polemika handia izan eta gero, eta orain lau auzotan dago aukera euskaraz eskolatzeko. Hala ere, eskuinak helegitea jarri zion eskaintza honi eta epaia ez da oraindik atera. Aukera handiak daude atzera egiteko, epaiek hala erabakitzen dutelako edo Iruñeko udal berriak oztopa dezakelako.

Iruñerrian euskarazko eskaintza zabalagoa izan da eta Burlatan, Atarrabia, Antsoain, Sarriguren, ea, familiek hala eskatzen badute, aukera dute bere seme alabek hizkuntza honetan eskolatzeko. Berdin gertatzen da zonalde euskaldunean baina Erriberan hedatu dira gaztelaniaz ingeleseko jarduerekin programak.

Nahiz eta aditu askoren ustez programa horiek astakeria galanta izan, UPN/PSNek defendatu dituzte jo ta ke eta beste indarrek ez dute ausardiarik izan hori ekiditeko.

Plataformaren rola


Plataforma osatu zenean, sindikatu askok, APYMEN federazioek eta kolektibo ugari bultzatu zuten. Gero bizirik mantendu da batzuen ahaleginagatik, baina erreferente bihurtu da egindako lanagatik: 0-3 diagnostiko txostenak, ebaluazioaren inguruko argitalpena, bideoak, hitzaldiak, mobilizazioak, parlamentuaren aurrean agerraldiak...

Azken lau urte hauetako lan handiena betiko proposamenak gobernuak aurrera eramateko bultzatea izan da. Ikasturte honen hasieran Departamentuko arduradunak haur eskolen kudeaketa komunera progresiboki iristeko aurkeztu zigun plangintza nahiko interesgarria iruditu zitzaigun. Zoritxarrez, ez da publiko egin eta ez zien ezta gobernuia sustegatzen zuten partiduei aurkeztu. Legealdi amaieran, mila buelta eman eta gero, hasierako puntuan gaude.

Aurrera begira zer?

Ez dakigu zein izango den hauteskudetik aterako den gobernuia, baina ez dirudi itxaropen handirik dagoenik epe labur-ertain batean korapiloa askatzeko urratsak emateko.

Egun hauetan, 0-3ko langileen grebak izan dira estatu mailan beraien lan baldintzak hobekuntza aldarrikatzeko. Ezin dute egoera larri hau gehiagorik jasan.

Hemendik aurrera borroka izan behar da bidea. Mobilizazioak bultzatu behar dira berriro. Plataformak deitutako asanbladatik atera behar da korapiloa askatzeko datorren ikasturteetako estrategia. 

OPE Osakidetza. Un sistema fraudulento al servicio del capital

Patxi Nicolau
Representante de ESK
en Osakidetza.

Ha pasado más de un año desde que ESK destapara las filtraciones en los exámenes de determinadas categorías médicas en la última OPE de Osakidetza. En este año, hemos asistido a la dimisión de la cúpula gestora de Osakidetza, con su Directora General a la cabeza, seguida de su Director de Recursos Humanos y que finalmente llevo aparejada la dimisión del Consejero de Salud, el señor Darpón.

Las sospechas de fraude en estas categorías eran un clamor popular entre el personal del Servicio Vasco de Salud. Tanto es así, que mucho antes de realizarse los exámenes ESK, a instancia de un grupo de profesionales médicos afiliados/as al sindicato, decide denunciar bajo el formato de “Supongamos” en un escrito dirigido a la plantilla la posibilidad de filtraciones de exámenes. Decide poner el dedo en la llaga y denuncia que en las oposiciones de estos colectivos se están quebrando los criterios de igualdad, capacidad y mérito. Incumpliendo los criterios de la Convención de las Naciones Unidas contra la Corrupción de 2003 y el Estatuto de la Función Pública Vasca. Un fraude orquestado por un entramado del que forman parte algunos Jefes de Servicio que, deciden quién obtiene plaza y quién no, y con conocimiento de los responsables de Osakidetza.

Ante la negativa de la Fiscalía y el Ararteko de intervenir de manera previa a la realización de los exámenes por no existir evidencias, en abril de 2018 (faltando un mes para la realización de los exámenes) ESK decide levantar un Acta Notarial, con el nombre de las 7 mejores notas de determinados aspirantes, así como su orden de puntuación, acertamos el pleno.

Nos encontramos ante un sistema clientelar en la adjudicación de determinadas plazas de especialidades médicas. Un sistema fuertemente arraigado en Osakidetza, normalizado y de sobra conocido por los diferentes gestores de nuestra Sanidad Pública.

Un nuevo fraude que llueve sobre mojado

Un fraude que afecta a temas muy sensibles para la ciudadanía ya que inciden sobre la oportunidad de conseguir un empleo estable. Un nuevo fraude que llueve sobre mojado. En 1990 y con la consejería de sanidad en manos del partido socialista se realizó una OPE masiva que convocaba 2.500 plazas y que terminó en uno de los mayores escándalos en un proceso de selección de empleados públicos en la Comunidad Autónoma. Siete de las once pruebas para puestos no sanitarios fueron anuladas al detectarse un cambio de exámenes para beneficiar a unos 363 opositores, la mayoría familiares y personas vinculados al PSE y a la UGT.

Unos años después, la justicia condenó a penas cárcel a varios responsables de Osakidetza. Entre ellos estaban Mario González (Director General) y Pedro Pérez (Director de Gestión) a quienes se les castigó a seis años y medio de cárcel y 500.000 pesetas de multa. Un proceso que costó el cargo al entonces vicesecretario general del PSE, José Luis Marcos Merino.

La respuesta de Osakidetza no ha estado a la altura

Pero volvamos a la actualidad.

La respuesta de los gestores de Osakidetza, una vez más, no ha estado a la altura. Ante las primeras denuncias su

respuesta fue negar la mayor, cargando la responsabilidad sobre agentes externos (los Tribunales examinadores, el IVAP), o tildando como denuncias obscenas las realizadas por los sindicatos. Eso sí, se ven obligados a iniciar una investigación interna, sin aportar ninguna causa aparente que la justifique, y que más parece encaminada a forzar un cierre de filas que a esclarecer lo ocurrido. Mientras, ESK acude a los Tribunales.

Su objetivo nunca ha sido aclarar las dudas, ni despejar las sospechas, determinando responsabilidades, cuyas consecuencias penales se están dirimiendo vía judicial. El objetivo que se escondía detrás de las decisiones del ya exconsejero era echar balones fuera, buscando minimizar los daños y amedrentar al personal que se ha atrevido a denunciar la corrupción existente en un intento de echar tierra sobre el asunto y evitar olores de corrupción.

Finalmente, como si estuviéramos en un mundo del revés, en comparecencia parlamentaria el Sr Darpón y María Jesús Múgica convierte a los denunciantes en denunciados en un intento de segar cualquier actitud de denuncia o de exigencia de derechos por parte del personal.

Pero sus deseos no se cumplen y las denuncias lejos de aminorar, crecen y el escándalo se incrementa con las denuncias de opositores en otras categorías obligando a Osakidetza a ampliar la paralización más allá de las cuatro especialidades del comienzo. El manto de la sospecha se extiende.

Finalmente, y en pleno periodo vacacional, Osakidetza decide publicar la repetición de las pruebas de tres especialidades médicas. Decisión que demuestra su empecinamiento en negar la evidencia, y seguir adelante con un proceso que, cada vez más, es percibido por la ciudadanía como amañado. Decisión recurrida por ESK y cuya repetición de pruebas, a día de hoy, se encuentra en el limbo, ya que Osakidetza aún no ha señalado fecha para las mismas.

El escándalo, lejos de amainar, continúa con una nueva comparecencia parlamentaria, en la que el señor Darpón y la señora Múgica presentan las conclusiones de su investigación interna. Investigación que, como decíamos más arriba, solo les sirve para cerrar filas

y negar los testimonios de miembros de diferentes Tribunales, que reconocen los indicios de filtraciones.

Conclusiones que Osakidetza eleva a la Fiscalía, y que sirven para avalar la denuncia que esta eleva al Juzgado. Donde Darpón y Múgica no ven indicios de delito, la Fiscal imputa a tres Jefes de Servicio por revelación de secretos, y propone llamar a declarar, entre otros, a tres altos cargos de Osakidetza, condicionando su comparecencia (como meros testigos o como imputados) a cómo se desarrollen los interrogatorios al resto de personas llamadas a declarar.

Mientras, a Darpón se le abre un nuevo frente, con la solicitud, por parte de EH Bildu y de Podemos, de creación de una Comisión de Investigación Parlamentaria sobre este escándalo. En un intento de paralización de la misma, la Directora General de Osakidetza, la señora Múgica, presenta su dimisión como peaje político que el PNV paga por la abstención del PP, que junto a los votos en contra del propio PNV y de su socio de Gobierno, PSE, impiden la creación de la misma.

Y así acabamos 2018, pero el culebrón continua.

A primeros de enero de 2019, el Director de Recursos Humanos, señor Soto, presenta su renuncia al cargo sin explicitar los motivos. Esta renuncia se produce después de la entrada del nuevo Director General, señor Diego; hombre de confianza del PNV y mano derecha del Lehendakari, señor Urkullu. Y es una muestra más de la nefasta gestión del escándalo; la entrada del señor Diego solo tiene como objetivo llevar adelante la política de “control de daños”, y presentar la renuncia como un proceso de reorganización del Departamento de Personal, sin aportar medidas concretas.

Pero la investigación de la Fiscalía da sus frutos, y en febrero eleva sus conclusiones al Juzgado. En las mismas, y como decíamos más arriba, imputa a tres Jefes de Servicio y pone el foco sobre la actuación de tres responsables de Osakidetza: el señor Soto, ya ex Director de RRHH, y los todavía Director de Asistencia Sanitaria, señor Arcelay, y Subdirector de RRHH, señor Balerdi.

Esta situación eleva la presión sobre el todavía Consejero, señor Darpón; no solo se reactiva la solicitud

Para ESK, es imprescindible una profunda renovación en la política de Selección y Provisión de Personal, y esta no va a venir de la mano del PNV; y estamos seguras de que eso no va a ser así porque el PNV es el adalid de las políticas neoliberales instauradas en “el oasis vasco”.

de creación de una Comisión de Investigación, sino que también se solicita su reprobación Parlamentaria.

Finalmente, y antes de que se produzca el pertinente debate parlamentario, el señor Darpón dimite el 14 de marzo, dejando desolado al Lehendakari Urkullu y al Presidente del EBB, señor Ortuzar; ¡nunca han tenido mejor Consejero!

¿Y ahora, qué?

Evidentemente, la vía judicial sigue su curso, es ahí donde se dirimirán las responsabilidades penales. Pero para ESK esto no es suficiente.

Nos encontramos ante un sistema clientelar en la adjudicación de determinadas plazas de especialidades médicas. Un sistema fuertemente arraigado en Osakidetza, normalizado y de sobra conocido por los diferentes gestores de nuestra Sanidad Pública.

Para ESK, es imprescindible una profunda renovación en la política de Selección y Provisión de Personal, y esta no va a venir de la mano del PNV; y estamos seguras de que eso no va a ser así porque el PNV es el adalid de las políticas neoliberales instauradas en “el oasis vasco”. Recordemos:

La Ley 15/97, que se aprobó con los votos favorables de PP, PSOE, PNV, CIU y Coalición Canaria; sobre nuevas formas de gestión del Sistema Nacional de Salud y, que, en su artículo único, dice, textualmente: “La

Osakidetza decide publicar la repetición de las pruebas de tres especialidades médicas. Decisión, recurrida por ESK, que demuestra su empeñamiento en negar la evidencia, y seguir adelante con un proceso que, cada vez más, es percibido por la ciudadanía como amañado.


prestación de los servicios sanitarios y sociosanitarios podrá llevarse a cabo, además de con medios propios, mediante acuerdos, convenios o contratos con personas o entidades públicas o privadas”, supuso que en Osakidetza proliferasen las concesiones a empresas privadas para la realización de determinados servicios, entre ellos, la limpieza de nuestro Hospitales y Centros de Salud, o lavandería y cocina; ESK no hemos dejado de denunciar lo que esta privatización supone para las arcas públicas y la atención a la ciudadanía, hasta el extremo que el propio Tribunal Supremo nos dio la razón, al declarar nulo de pleno derecho el intento de privatización en estos servicios, dentro del nuevo Hospital de Urduliz.

Pero no solo se despilfarra dinero público a través de las subcontratación; ejemplo claro es la existencia de la autoconcertación. Iniciada en 1992, Osakidetza contrata a profesionales de plantilla, fundamentalmente personal médico, para trabajar fuera de su horario habitual y cobrar por “acto médico” (se calcula que unos 300 € por cada uno), con la paradoja de realizar más actos fuera de su jornada y en menos tiempo; y es en este marco, donde a las Jefaturas de los Servicios les interesa tener a gente de su misma concepción ideológica, y así seguir manteniendo este sistema de sobresueldos.

A esto hay que añadir la aprobación, el 23 de mayo de 2012, por el Consejo de Administración de Osakidetza, de la regulación en nuestro ámbito de las Unidades de Gestión Clínicas, que definió como: “estructuras organizativas en las que se agrupa un conjunto determinado de recursos humanos y materiales con objeto de prestar atención sanitaria”. Y todo ello dentro del denominado sistema de gestión clínica, que consiste, según esta normativa, en “transferir poder y responsabilidad a los profesionales facultativos y de enfermería, que son los profesionales que toman la mayor parte de las decisiones sobre la utilización y consumo de recursos”; nos encontramos con profesionales de la medicina y Jefaturas de Servicio con más poder aún, ya que son estos profesionales los encargados de firmar un acuerdo de Gestión con las Direcciones de nuestros Centros Públicos.

En dichos acuerdos se contempla la manera de asignar incentivos en base a las mejoras y los ahorros potenciales y el porcentaje de reversión a la Unidad en función del grado de cumplimiento de los objetivos marcados por esta. Si a esto juntamos los pagos que se deriven de la autoconcertación, nos encontramos con unos sobresueldos y un poder desmedido para los Jefes de Servicio.

Además, se le otorga un gran poder a la Dirección de la Unidad, que tiene capacidad de decisión sobre todo lo que afecta al personal de la unidad e incluso sobre quien ocupará las vacantes.

Implantar y mantener este Modelo de Gestión entre los Profesionales de los Servicios es incompatible con un acceso al empleo público, transparente y basado en mérito, igualdad, capacidad y publicidad que ha de darse en todo proceso selectivo; y esto la sabe tanto Osakidetza como el propio Departamento de Sanidad. Es por ello que las filtraciones en los exámenes de Especialistas Médicos son el pan nuestro de cada día; solo Servicios férreamente controlados por las Jefaturas podrán asegurar y garantizar a Osakidetza y sus Gestores la implantación de este Modelo Privatizador. 

Berriro ere erlijioa

Arantza Lekuona
Steilaskidea.

Amaitu da batxilergoko matrikulazio epea eta matrikula epe guzietan lez hasi gara erlijioa eskola publikoan mantentzearen aldeko arrazoiak entzuten/irakurtzen. Nik ere nire gogoeta batzuk azaldu nahi nituzke gaiari buruz.

Fededunek beren balioekin bat datorren hezkuntza eskatzeko eskubidea aipatzen da. Aspaldiko partez zintzoa izango naiz eta ez dut komentatuko DBHn eta batez ere batxilergoan pizgarriengatik (Erromara bidaia, eskola egunetan Santio bidearen zati bat egitea, merendolak, film bat bestearen atzetik ikustea edo eta bikaina zirtatua izatea), eta inongo federik gabe, erlijioa aukeratzen duten ikasleen kopurua... eta urtea berdin amaitzen dutenak, fede zipitzik gabe! Esan ohi da gainera, erlijioiko ikasleek abantaila dutela zeren gizartearen eta erlijioaren balioak ikasten baitituzte, hau da, emakumeak baztertzen dituen erakunde batek feminismoa eta berdintasuna irakasten du? Bere buruzagia gizonezkoen sufragio zentsitarioz aukeratzen duen estatu bakarrak demokrazia irakasten du? Errefuxiatuekin kontuz ibiltzeko tartean terroristak sartuko zaizkigula esan dutenak solidaritatea irakatsiko dute? Inmatrikulazioen bidez denonak ziren eraikuntza eta lurrotaz jabetu direnak erdibanatzen irakatsiko dute?...

Erljioa pribilegio bat ez dela baizik eta eskubide bat eta eskubide hau Konkordatuan jasota dagoela askotan errepikatzen da. Berez Konkordatua Vatikanok beste estatu batekin sinatzen duen nazioarteko akordio bat da. Espainiako hau Francok izenpetu zuen 1953

urtean. Benetan Pio XIIren kezka nagusia nazional-katolismo garaian eskoletan erlijioa ez irakastea al zen? Francok 5. manamenduaren eta bizitza eskubidearen aurka egiten zuen heriotza zigorra mantenduz (eta erabiliz). Horrek ez zuen axola?

(Oraingoz) gure legeen iturria den konstituzioak dio bere menpeko biztanle guztiek eskubide berberak ditugula, beraz erlijioiko klaseak eskubide bat badira zergatik ikasle batzuk bakarrik jasotzen dute? Alde batetik, eskola batek erlijioiko irakasle bat izateko ikasle katoliko bat nahikoa da, baino 10 ebanjeliko, judu edo musulman behar dira gauza bererako; bestalde, gure eskoletan ugaritzen ari diren budistek ez dute irakaslerik izango, ez du axola zenbat diren. Beraz, katoliko batek ebanjeliko batek baino hamar (eta budista batek baino infinitu) aldiz gehiago balio du. Hori da berdintasunean tratatzea? Benetan erlijioa eskubide bat bada, eskola guztietan islam, Jehovahen lekuko eta gainerako irakasleak izango genituzke. Eta ateismokoak ere, azken finean hauek ere bere ideietan sendotuak izateko eskubidea izango dute, ezta?

Inork ez dezala aurreko paragrafoa gaizki ulertu, ez dut inolaz ere azken garaian hain modan jartzen ari den demokraziaren izenean beste erlijioak eskoletan sartzearen aldeko mugimendurekin bat egiten eta. Ez eta gutxiago ere!! Gorputz bat ez da sendatzen birus gehiago inokulatuz. Desberdintasunak garbi utzi nahi nituen soilik.

Behin eta berritan entzun behar dugu ikasle guztiak berdinean tratatuak diren adierazle gisa, besteak ez daudela zokoratuak eta hor dutela lege aldaketa

guztietan izenez aldatu den beste gai hori (alternatiba, etika, HEA, Balio Etikoak). Ya! Baizik eta Balio Etikoko taldeetan katoliko erromatar ez diren guztien nahaspila dela (berriro ez gaizki ulertu). Hor ditugu kultura heteropatriarkaleko partaideak, feminista hisikorrak, ateo konbentzituak, homosexualak, talde animalistetako partaideak... eta horrek ematen dio talde horiei erlijioak sekular izango ez duen bizitasuna eta aberastasuna eztabaidetan. Are gehiago, irakasleak ezin dituelako amaitu esanez "eliz ama santuak horrela dio eta kito" baino horrek ez du aurreko paragrafoan esandako aldatzen, ez da gauza bera nahi duzuna edo ahal duzuna aukeratzea. Hori bai, erlijioiko ikasleei Balio Etikoetara pasatzea aholkatuko nieke, ez dute merendolarik egingo eta behar bada film gutxi ikusi baino demokrazia ikasi... pilo bat!

Gehiago. Erlijioak ez duela hautazko eta aukerazko gaiak baino gehiago banatzen. Ya! Berriro. Hasteko erlijioa bai/ erlijioa ez Lehen Hezkuntzan gurasoak (eta ez ikasleak) aukeratzen dute, eta LH osoan bereizten dituen gai bakarra izango da. Beste aukeraketak DBHn hasten dira, gatzetxoak bere iritzia izateko/ esateko nahiko adina dutenean. A gaia ez duenak nahi, B edo C edo D edo E edo... hartu dezakete bere gustu/ asmo/ahalmen arabera; A hartu ez duten guztiak ez daude Z egitera behartuta.

Guzti honengatik gure oihua garbia da: **Erljioa eskolatik kanpo!** 🗑️



EHIGE-ren diskurtsoa Euskal Eskola Publikoaren 28. Jaiaren hasiera-ekitaldian

Ana Puente

EHIGEko Presidentea.

Mila esker agintari eta gonbidatu guztiei gaur gurekin egotea erabakitzeagatik, Euskal Eskola Publikoari babesa ematen.

Mila esker urtero Euskal Eskola Publikoaren Jaia egiten laguntzen diguzuen babesle eta laguntzaile guztiei. Eta mila esker, bereziki, Errenteria eta Oarsoaldeako Hezkuntza Publikoaren komunitateari, urte osoan zehar egindako lanagatik. Zuok, bai, makina bat pertsona! Zuon esfortzuak merezi du eta merezi izango du; ondare ederra utzi duzue etorkizunerako.

Izan ere, Errenteriako irakaskuntza publikoak ederki islatzen ditu Euskal Eskola Publikoan dauzkagun balioak: dudarik gabe, gure eskola euskalduna da, parte-hartzailea, berritzailea, denona eta denontzat eta, ondorioz, gizarte osoari irekia.

Euskara batuak 50. urteurrena ospatu berri duen momento honetan, eta hemen egonik, Koldo Mitxelena ekarri nahi dugu gogora. Berak hasi zuen bideak gure Eskola Publikoan dirau.

Eta zein da gaur gure helburua? Guraso elkarteok 1994tik antolatzen dugun Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren helburua? Ba aldarrikatzea Eskola Publikoa Hezkuntza-Sistemaren ardatza dela. Urte guzti hauetan, 25 urte, Eskola Publikoa ezinbesteko elementua izan da Hezkuntza Sistema demokratizatzeko. Ezinbestekoa euskararen ezagutza zabaltzeko; ezinbestekoa beronen erabilera normalizatzeko, bereziki jatorriz euskara erabiltzen ez duten familien artean. Eskola Publikoak prestigio sozial handia lortu du, kohesioari lagundu dio, baita hezkuntza sistema ekitatiboagoa eraikitzen ere.

Gaur harro esan dezakegu Eskola Publikoa dela herritar guztiei ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzen dien sare bakarra.

Azken hilabeteetan, askotan aritu gara Euskal Hezkuntza Legeari buruz. Abenduan, hainbat eragilek benetako prozesu parte-hartzailea eskatu genuen publikoki, zeren lege hori egiteko oinarrizart hartu nahi den “Hezkuntzaren aldeko akordioa” izeneko dokumentuak ez baitu adostasunik. Bestalde, aste honetan bertan amaitu da Lege horren aurreproiektua egin aurretiko kontsulta publikoa. Kontsulta horri ekarpen zabala egin diogu.

Lehenik eta behin, ez dugu arrazoirik ikusten Euskal Eskola Publikoaren Legea amortizatuztat emateko, egun indarrean dagoen lege horrek badituelako oraindik garatu ez diren potentzialtasun inportanteak, besteak beste, ikastetxe publikoen autonomia eta parte-hartzearen garapena.

Bestalde, uste dugu erreforma urgentek egin behar direla gure hezkuntza sisteman, guk helburu dugun justizia sozialerako hezkuntza garatu ahal izateko. Izan ere, guretzat sistemaren modernizazioa eta hezkuntza-berrikuntza lotuta egon behar dira ikasle guztien hezkuntza-arrakastarekin.

Hainbat erronka ditugu esku artean: ikasle euskaldun eleanitzak lortu, fenomeno migratzaileak, krisi ekonomikoak eta pobrezia egoerak, genero berdintasuna, alfabetizazio digitala eta abar. Euskal Eskola Publikoak argi du zein den erronka hauei eman behar diegun erantzuna: gure herriak hezkuntza-sistema propioa eraiki behar du, eta sistema horrek ekitatea eta benetako giza-inklusioa bermatu behar du, aldi berean hezkuntza-bikaintasuna ziurtatuz.


Publiko-pribatu eredu dualak porrot egin du. Ez dio behar bezala erantzuten gure gizartearen erronka

nagusiei. Segregatzailea da. Aldaketa sakona egiten ez badugu, euskal hezkuntza sistemak interes korporatibo eta desberdintasun sozialen erreproduzitzaile izaten jarraituko du.

Guzti horrengatik konpromiso soziala eskatzen diegu eragile eta partidu politikoei, guztion artean etorkizuneko gizarte proiektu berri bat eraikitzeko.

Epeei dagokienez, ez dugu bat egiten gobernuak, antza, duen presarekin. Benetan behar duguna ez da egungo sistema, egungo statu quo-a balioztatuko duen lege bat egitea, baizik eta behar den denbora guztia hartzea parte-hartze eta eztabaidaren bidez erabakitzeko zer nolako hezkuntza nahi duen gure herriak. Gure sistemak dituen desajuste estrukturalak kontuan hartuko ez dituen lege mozorrotzaile bat egin ordez, lehenetsi dezagun eztabaida sana. Alderdi politikoei, hezkuntza-eragile guztiei, gizarte osoari borondate ona eta konpromezua eskatzen dizuegu.

Eta amaitzeko, esan heldu zaidala agurra emateko unea. Lagunak! Mila esker urte guzti hauetan zehar eman didazuen guztiagatik! Ondo izan, segi aurrera, eta beti gora Euskal Eskola Publikoa! Mila esker. 🇪🇺



eskola publikoa



www.steilas.eus